OIARTZUNGO UDALA

OIARTZUNGO UDALA
Udal Osoa
AKTA

ZB. 2026 / 7

AKTA

UDAL OSOKO OHIKO BATZARRA

Udal-Osoko Ohiko batzarra bildu da:

Eguna: 2026/06/24
Ordua: 18:00ak
Tokia: Udaletxeko areto nagusian
Bertaratuak:

Alkatea: Joana Mendiboure
Zinegotziak:

EH Bildu
- Olaia Lasa Olaziregi
- Garazi Urdampilleta Astibia
- Ibon Mitxelena Fernandez
- Nora Velez del Burgo Zalakain
- Jexux Olaziregi Bagües
- Edorta Fernandez Etxepeteleku
- Oihana Irastorza Gonzalez
- Aiako Harria Gaztelumendi Gaztelumendi
- Ekain Susperregi Ibarguren
- Jon Albisu Mendiburu

EAJ-PNV
- Janire Mitxelena Lekuona
- Rafael Bergaretxe Urdampilleta
- Maitane Larruskain Agirre

Idazkaria:

Maria Victoria Joaristi Olariaga

Ezin etorria adierazi dute:

Agustin Lekuona Irastorza
Ibintza Iragorri Iriarte
Iñaki Arbelaiz Mitxelena

AZTERGAIAK:

1. Aurreko batzarrari dagokion akta onartu zen.
2. Oiartzungo udal araubideko etxebizitza tasatuen eskatzaileen Erregistroaren Erregelamenduaren aldaketaren akats zuzenketa onartu zen.
3. 2025-2027 ekitaldietarako dirulaguntzen Plan Estrategikoaren 4. aldaketa onartu zen.
4. Argiturri Kooperatiba sozietatearen bazkide laguntzaile izateko proposamena onartu zen.

ESKU8c92eb32-02e5-4b63-96ae-845e66ae6776

5. Oiartzungo Hiri Antolaketako Plan Orokorraren 3. aldaketa, udalerriko erabilera turistikoak eta turismo-ostatuko establezimenduen hirigintza-antolamenduari dagokion Ordenantza aldaketa behin betiko onartu zen.

6. Arraguako ARR-1A eta ARR-1B eremuen antolamenduzko hirigintza-hitzarmenari oniritzia eman zitzaion.

7. Oiartzungo udal mugapean bidaiarien hiri-garraio zerbitzua eta horretarako beharrezkoa den autobusaren -Xorrola- hornidura kontratuari oniritzia ematen eta kontratazio espedienteari hasiera ematea erabaki zen.

8. Gizarte bazterketa eta ekonomia larritasun egoerei aurre egiteko norbanako eta familientzako laguntzak onartu ziren.

9. 2025eko Kontu Orokorra onartu zen, Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoari dagozkion kontuak barne.

10. 2026/06 kreditu aldaketa onartu zen.

11. 2026ko Gizarte Larrialdietarako laguntzak (GLL) emateko irizpideei oniritzia eman zitzaien.

12. 2026-01 Preskribatu eta kobraezinen zerrenda (isunak) onartu zen.

13. Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sarearen Lurralde Plan Sektoriala berrikusteko eta egokitzeko prozeduran udalaren informazioa bidaltzearen inguruan berri eman zen.

14. 2026/03 kreditu aldaketa. Gehikuntza: 34.134,80 € . Berri eman zen.

15. 2026/04 kreditu aldaketa. Gaikuntza: 13.149,00 € Berri eman zen.

16. 2026/05 kreditu aldaketa. Transferentzia: 40.200 € Berri eman zen.

17. 2026ko kontrol finantzarioko urteko planaren berri eman zen.

18. Beste organoen jardueraren jarraipenaren inguruan batzarrari informazioa eman zitzaion.

19. EAJ/PNV bozeramailea den Janire Mitxelena andereak, 0-2 urteko gelaren titularitate aldaketari egindako trantsizioaren inguruan galdetzen du. Alkateak erantzun dio.

ESKU8c92eb32-02e5-4b63-96ae-845e66ae6776

OIARTZUNGO
UDALA

-I-

AURREKO BATZARRARI DAGOKION AKTAREN ONARPENA.

2026ko maiatzaren 27an egindako Udal Osoko ohiko bilkuraren akta onartu zen gehiengo absolutuz, aldeko 14 botorekin (EH Bildu 11, EAJ/PNV 3)

-II-

OIARTZUNGO UDAL ARAUBIDEKO ETXEBIZITZA TASATUEN ESKATZAILEEN ERREGISTROAREN ERREGELAMENDUAREN ALDAKETA. AKATS ZUZENKETA

Udal honek 2026ko maiatzaren 27ko osoko bilkurak Oiartzungo "udal araubideko etxebizitza tasatuen eskatzaileen erregistroa arautzen duen Erregelamenduaren" aldaketaren hasierako onarpenaren dokumentuari jarritako alegazioa erantzun eta behin betiko onarpena ematea erabaki zuen.

Udal Ordenantzaren aldaketa jendaurrean jarri zenean "Elkartu Federación de personas con discapacidad física de Gipuzkoa" delakoak alegazioa aurkeztu zuen eta udalak partzialki onartzea erabaki zuen.

Alegazioa partzialki onartzearen ondorioz 3.1.c), artikulua aldatzea ebatzi zen. Artikulu hori Erregistroan alta eman ahal izateko beste etxebizitzarik ez izatearen baldintzari buruzkoa da eta berau salbuesteko egoeren ingurukoa. Alegazioa partzialki onartzearen ondorioz, idazketa berrian salbuespen egoerak zabaltzea proposatu zen. Horrela, autonomia-erkidegoko araudian jasotako kasuetan edo etxebizitza indarrean dagoen araudian ezarritako gutxieneko bizigarritasun-baldintzak ez izateaz gain irisgarritasun-baldintzak gehitzea onartu zen, beste etxebizitzarik ez izateko betekizunetik salbuesten duen faktore gisa.

Udal idazkariak egindako txostenaren arabera, alegazioa partzialki onartzeko oinarria udalak 2012ko urriaren 15eko Aginduaren araubide hori malgutu dezakeela izan zen, adinaren baldintza ezabatuaz desgaitasuna duten pertsonentzako. Kontua da aipatu Aginduaren araubidearen egungo idazketak betetzen duela baldintza hori eta, ondorioz, alegazioak eskaturikoa erkidegoko legerian jasota dagoela.

Ondorioz, alegazioa partzialki onartzea egokia da baina udal Erregelamenduaren idazketan 2012ko urriaren 15eko Aginduaren araubideari erreferentzia egitea nahikoa izango da.

Udal honetako Idazkariaren txostenaren baitan eta Lurralde batzordeak 2026ko ekainaren 17an emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzari, honako akordioa har dezan proposatzen zaio:

AKORDIOA

2026ko maiatzaren 27ko udalbatzak harturiko erabakiaren lehen atala zuzendu eta horrela jasotzea, gainerako erabakiak bere horretan mantenduz:

Lehenengoa.- Alegazioa partzialki onartu eta 3.1.c) atala horrela idatziko da:

> 3.1.c) Todas las personas beneficiarias de VTM, entendiendo por tales la totalidad de las personas miembros de la unidad convivencial, deberán cumplir el requisito de no disponer de otra vivienda, bien en propiedad, plena o superficiaria, bien por derecho real de disfrute vitalicio, y ello en los términos y con las salvedades establecidas en la normativa autonómica que define la necesidad de vivienda, según lo establecido en el artículo 9 bis del Decreto de 12 de octubre de 2015, del Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, del registro de solicitantes de

ESKU8c92eb32-02e5-4b63-96ae-845e66ae6776

vivienda y de los procedimientos para la adjudicación de Viviendas de Protección Oficial y Alojamientos Dotacionales de Régimen Autonómico, o normativa que lo sustituya.

3.1.c) Udal etxebizitza tasatuen onuradun guztiek (elkarbizitza unitateko kide guztiak sartzen dira onuradunen multzoan) bete behar duten baldintza da etxebizitzarik ez edukitzea era hauetakoren batean: Jabetzan -erabatekoan edo ez azalera-eskubideko jabetzan-, edota biziarteko gozameneko eskubide erreal bezala, etxe premia definitzen duen arautegi autonomikoaren terminoetan eta salbuespenekin, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren, etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzko, AGINDUAren, 2012ko urriaren 15ekoaren, arabera, edo bere ordez onartzen denaren arabera.

Alkateak azalpena eman ondoren, udaleko Idazkariaren txostenaren baitan eta Lurralde batzordeak 2026ko ekainaren 17an emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, aho batez, onartu zuen Oiartzungo udal araubideko etxebizitza tasatuen eskatzaileen erregistroaren erregelamenduaren aldaketan egindako akatsa zuzentzea.

Botazioa:

	Bozka kopurua	**Udal taldea/zinegotzia**
Alde	14	11 EH Bildu, 3 EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa		

-III-

2025-2027 EKITALDIETARAKO DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN 4. ALDAKETA

AURREKARIAK

2025-2027 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren laugarren aldaketa egiteko beharra antzeman da. Horretarako izapidetu den espedientean, aldaketaren beharra eta egokitasuna justifikatzen eta arrazoitzen dituzten txosten teknikoak jaso dira.

Horrenbestez, teknikarien, idazkariaren eta kontuhartzailearen txostenak eta Antolaketa eta Kontu bereziak batzordeak 2026ko ekainaren 18an emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzari, honako akordioa har dezan proposatzen zaio:

AKORDIOA

Lehena.- 2025-2027 ekitaldietarako dirulaguntzen Plan Estrategikoaren 4. aldaketa onartzea, honako lerro estrategiko hauetan:

1. lerro estrategikoa: Ekonomiaren sustapena

Helburu orokorra: Oiartzunen garapen ekonomiko jasangarria eta enpleguaren sustapena genero ikuspegitik bultzatzea herritarren bizi kalitatea hobetzeko.

Programaren deskribapena	**Helburua**	**Hartzaileak**	**Dirulaguntza mota**	**Zenbatekoa**	**Adierazleak**	**Ekintza plana: oinarri arautzaileek**

ESKU8c92eb32-02e5-4b63-96ae-845e66ae6776

						izan beharreko oinarrizko lerroak eta plana gauzatzeko egutegia
Gizarte moneta proiektua	Tokiko ekonomia indartzea eta aberastasuna lurraldean bertan mantentzea, merkataritza, ekoizpena eta enplegua sustatuz eta aldi berean balio sozial, ekologiko eta komunitarioak bultzatuz	Gizartearen Moneta elkarte soziala	Itunpekoa	7.700 € (2026) 11.000 € (2027) 1 0223 481 430 00 02 2026	Urteko memoria tekniko	Indarraldia: Urtekoa. Itunpeko dirulaguntza mota, non hitzarmenak eta ordenantza orokorrak ezartzen dituzten baldintza guztiak.

2. lerro estrategikoa: Hezkuntzaren sustapena.
Helburu orokorra: Herrian hezkuntza parekidean berrikuntza sustatu eta hezkuntza eskaintza hobetzea, ikastetxe ezberdinen jarduera lagundu eta bultzatuz. Horretarako ikastetxeetako gastuak zati batean finantzatuko dira haurren heziketa osatzeko, ikastetxeetako baldintzak hobetzen laguntzeko, udalerriko ikastetxeetako kalitatea bermatzeko eta ikastetxeen parte hartzea bultzatzeko herriko ekimenetan.

Programaren deskribapena	**Helburua**	**Hartzaileak**	**Dirulaguntza mota**	**Zenbatekoa**	**Aurrekontu aplikazioa**	**Adierazleak**	**Ekintza plana: oinarri arautzaileek izan beharreko oinarrizko lerroak eta plana gauzatzeko egutegia**
Martzelina elkartearekin hitzarmena	Bertsolaritza sustatzea	Martzelina Bertso Elkartea	Itunpekoa	3.000,00 €	1 0331.481.3 34.00.14	Burutako ekintza kopurua, urteko memoria eta txosten ekonomikoa	Indarraldia: Urtekoa Itunpeko dirulaguntza mota, non hitzarmenak eta ordenantza orokorrak ezartzen dituzten baldintza guztiak.
Kantagiltza elkartearekin hitzarmena euskal kulturaren	Euskal kulturaren transmisioa sustatzea eta musikari	Kantagiltza Kultur Elkartea	Itunpekoa	13.200,00 €	1	Burutako ekintza	Indarraldia: Urtekoa Itunpeko

ESKU8c92eb32-02e5-4b63-96ae-845e66ae6776

transmisioa sustatzeko.	sortzaileen lanak plazaratzea. Horrez gain, euskal kantagintzari buruzko hausnarketa, ezagutza eta zabaltzea.				03331.481.334.00.19	kopurua, urteko memoria eta txosten ekonomikoa	dirulaguntza mota, non hitzarmenak eta ordenantza orokorrak ezartzen dituzten baldintza guztiak.
Udalbiltza: Geuretik Sortuak	Euskal kulturaren transmisioa sustatzea eta musikari sortzaileen lanak plazaratzea. Horrez gain, euskal kantagintzari buruzko hausnarketa, ezagutza eta zabaltzea.	Udalbiltza Partzuergoa	Itunpekoa	16.000,00 €	1 0331.481.334.00.15	Burutako ekintza kopurua, urteko memoria eta txosten ekonomikoa	Indarraldia: Urtekoa Itunpeko dirulaguntza mota, non hitzarmenak eta ordenantza orokorrak ezartzen dituzten baldintza guztiak.
Amilka Oiartzungo Erraldoi Elkartearekin hitzarmena	Erraldoien inguruko ondarea berreskuratzea eta honen zabalkundea bultzatzea.	Amilka Oiartzungo Erraldoi Elkartea	Itunpekoa	6.500,00 €	1 0331.481.334.00.05	Burutako ekintza kopurua, urteko memoria eta txosten ekonomikoa	Indarraldia: Urtekoa Itunpeko dirulaguntza mota, non hitzarmenak eta ordenantza orokorrak ezartzen dituzten baldintza guztiak.
Oiartzungo San Esteban elizako Cavaille-Coll organoaren zaharberritzean laguntzea.	Oiartzungo San Esteban elizako Cavaille-Coll organoaren zaharberritzea	Oiartzungo Parrokia	Itunpekoa	35.538,02 € 2027 urteko aurrekontuaren kontura)	1 0331.781.336.00.01	Burutako ekintza kopurua, urteko memoria eta txosten ekonomikoa	Indarraldia: 2027 urtekoa Itunpeko dirulaguntza mota, non hitzarmenak eta ordenantza orokorrak ezartzen dituzten baldintza guztiak.
Ikastetxeen ez ohiko ekitaldietarako	Elizalde Eskolaren 50. urteurrenek	Elizaldekoak LHI Eskolako Gurasoen	Itunpekoa	6.000 €	Burutako ekintza kopurua, urteko	Indarraldia: Urtekoak.	Itunpeko dirulaguntza mota, non hitzarmenak eta

ESKU8c92eb32-02e5-4b63-96ae-845e66ae6776

dirulaguntzak	o ekintzak.	Elkartea			memoria eta txosten ekonomikoa		ordenantza orokorrak ezartzen dituzten baldintza guzti

3. lerro estrategikoa: Euskararen sustapena eta normalizazioa

Helburu orokorra: Oiartzunen euskararen ezagutza eta erabilera sustatzea eta normalizatzea. Horretarako, adin nagusiko Oiartzuarrei euskara ikasteko erraztasunak eskaintzea, merkataritzan, herriko elkarteetan eta enpresetan euskararen erabilera sustatzea, gazteak aktibatzea eta motibatzea hainbat arlotan euskara erabiltzeko eta euskarazko komunikabideen jarduna bultzatzea dira lerroak.

Programaren deskribapena	**Helburua**	**Hartzaileak**	**Dirulaguntza mota**	**Zenbatekoa (2026)**	**Aurrekontu aplikazioa (2026)**	**Adierazleak**	**Ekintza plana: oinarri arautzaileek izan beharreko oinarrizko lerroak eta plana gauzatzeko egutegia**
NAIZ Irratiari dirulaguntza	Euskal Herriko komunikabide euskalduna diruz laguntzea	Naiz Irratia	Itunpekoa	5.000,00 €	Partida sortu beharra	Urteko memoria eta txosten ekonomikoa. NAIZ Irratia kudeatzen duen erakundeak eta Oiartzungo Udalak jarraipen batzordea osatzen dute eta bertan egiten da jarraipena.	Indarraldia: Urtekoa Itunpeko dirulaguntza mota, non hitzarmenak eta ordenantza orokorrak ezartzen dituzten baldintza guztiak.
Euskaltegiko talde txiki eta bereziak sustatzeko dirulaguntza	HABEk laguntzen ez dituen taldeak (ikasleen adinarengatik, ikasle kopuruarengatik, erritmo txikiarengatik …) aurrera atera ahalizatea	Euskaraz Kooperatiba Elkartea	Itunpekoa	57.100,00 € kendu eta 61.054,82 jarri	1 0321.481.33 5.00.11	- Urteko memoria eta txosten ekonomikoa. - Talde kopurua. - Ikasle kopurua. - Ikasleek lortutako emaitzak.	Indarraldia: Ikasturtea Itunpeko dirulaguntza mota, non hitzarmenak eta ordenantza orokorrak ezartzen dituzten baldintza guztiak.
Euskara	Helduei	Oiartzunen	Norgehia	53.000,00 €	1	- Eska	Indarraldia:

ESKU8c92eb32-02e5-4b63-96ae-845e66ae6776

ikasteko dirulaguntzak	euskara ikasteko eta hobetzeko ikastaroak egiteko erraztasunak ematea. Bereziki lehentasunezkoak diren kolektiboei: ikasleak, langabeak, pentsiodunak, zaintzaileak, langileak, elkartetako kideak…	erroldatuta dauden edota bertan hainbat sektoretan lan egiten duten 16 urtetik gorako pertsonak	goka	kendu eta 56.000 € jarri	0321.480.33 5.00.01	era kopurua. Emandako dirulaguntza kopurua, sexuagatik eta ikasmailagatik desagregatuak. -Baztertutako eskaera kopurua. -Erabilitako kreditua eta dirulaguntzen batez bestekoa. - Ikasleek lortutako emaitzak.	Ikasturtea Arloan dauden dirulaguntzak arautzen dituzten Araudiek eta oinarriek horien xedea eta helburuak, hartzaileak eta parte-hartze baldintzak, dirulaguntza emateko kontzeptuak eta irizpideak, diru-laguntzen justifikazioa, diruz lagun daitekeen gehieneko zenbatekoa, diruz lagundutako ekintzen justifikazioa eta hartzaileen betebeharrak jasotzen dituzte

5. lerro estrategikoa: Ingurumena eta landa garapena

Helburu orokorra: Oiartzunen ingurumena zaintzeko, landa-guneak mantentzeko jarduerak sustatzeko eta lehenengo sektorearekin harremana duten ekintzak genero ikuspegitik indartzea eta bultzatzea da helburua.

Programaren deskribapena	**Helburua**	**Hartzaileak**	**Dirulaguntza mota**	**Zenbatekoa**	**Adierazleak**	**Ekintza plana: oinarri arautzaileek izan beharreko oinarrizko lerroak eta plana gauzatzeko egutegia**
Zuhaitzak eta arbolak Euskal Herrian liburua argitaratzeko dirulaguntza	Zuhaitzen inguruko kultura eta ezagutza zabaltzea	KOMUNIKAZIO BIZIAGOA, SAL	Itunpekoa	3.000,00 € (2027)	Urtean zenbat liburu argitaratu diren eta liburuaren zenbat aurkezpen egin diren	Indarraldia: Urtekoa Itunpeko dirulaguntza mota, non hitzarmenak eta ordenantza orokorrak ezartzen dituzten baldintza guztiak
Trantsizio energetikoa	Energia berriztagarrien	ARGITTURRI	Itunpekoa	25.000 € (2026 eta	Urtean komunitateak sortuko duen	Indarraldia: Urtekoa Itunpeko dirulaguntza mota,

ESKU8c92eb32-02e5-4b63-96ae-845e66ae6776

	komunitateak bultzatzea			2027)	energia berriztagarria	non hitzarmenak eta ordenantza orokorrak ezartzen dituzten baldintza guztiak

6. lerro estrategikoa: Gizarte ekintza

Helburu orokorra: Oiartzuar guztien ongizatea bermatzeko ekintzak antolatzea eta bultzatzea da helburua, bereziki bereizkeria anizkoitza gainditzeko. Horretarako pertsonei eta elkarteei dirulaguntzak ematea da helburua. Bestalde, beste herrialdetako egoera larriei laguntzeko lerroak ere bultzatuko dira.

Programaren deskribapena	**Helburua**	**Hartzaileak**	**Dirulaguntza mota**	**Zenbatekoa**	**Adierazleak**	**Ekintza plana: oinarri arautzaileek izan beharreko oinarrizko lerroak eta plana gauzatzeko egutegia**
"PAUSO BERRIAK" programa sustatzea	Adimen desgaitasuna duen herritarra, laguntza premiak (maila ertaina) dituen pertsonari udalean lan egiten laguntzea	GUREAK INKLUSIO FUNDAZIOA GUREAK LANEAN SA	Itunpekoa	4.500,00 €	Urteko memoria tekniko jarduera-planaren betetze-maila, egindako zeregin okupazionalak, autonomia pertsonal eta sozialaren bilakaeraren ingurukoa.	Indarraldia: Lau urtekoa. Itunpeko dirulaguntza mota, non hitzarmenak eta ordenantza orokorrak ezartzen dituzten baldintza guztiak.

Programaren deskribapena	**Helburua**	**Hartzaileak**	**Diru laguntza mota**	**Zenbatekoa (2026)**	**Aurrekontu aplikazioa (2026)**
Familiei laguntzak	Babesgabetasun, menpekotasun edo gizarte bazterkeria egoerak prebenitu, ekidin edo gutxitu	Premiazko egoeran dauden norbanakoak edo familiak	Norgehiagoka	106.200,00 €	1 0341.480.231.00.02
Gizarte Larrialdietarako laguntzak	Gizarte Bazterkeriako egoerak prebenitu saihesteko edo arintzeko	Gizarte bazterkeria prebenitzeko saihesteko edo arintzeko beharrezko	Norgehiagoka	147.349,00€	1 0341.480.231.30.01

ESKU8c92eb32-02e5-4b63-96ae-845e66ae6776

		diren gastu espezifikoei, ohikoei nahiz ezohikoei, aurre egiteko behar beste baliabide ez duten pertsonak. Gizarte marjinazioko egoerak prebenitu, saihestu edo leundu			
Zailtasunak dituzten adin txikikoentzako eta haien familientzako laguntzak	Egoera ahuletan dauden edo premia bereziak dauzkaten haur, nerabe eta beraien familiei babesa eta gizarteratzea sustatzea eta bazterkeriari aurre egitea	Babesgabetasun arrisku egoeran dauden adin txikikoak eta beraien familiak	Norgehiagoka	35.00,00 €	1.0341.480.231.00.04

7. lerro estrategikoa: Gazteriaren sustapena

Helburu orokorra: Gazteen artean kultur-ekintzak sustatzea.

Programaren deskribapena	**Helburua**	**Hartzaileak**	**Dirulaguntza mota**	**Zenbatekoa**	**Adierazleak**	**Ekintza plana: oinarri arautzaileek izan beharreko oinarrizko lerroak eta plana gauzatzeko egutegia**
Gazteriaren sustapena	Gazteen artean kultur-jardueren sustapena	Agerrealde Kultur Elkartea	Itunpekoa	1.000,00 euro	Urteko memoria tekniko jarduera-planaren betetze-maila, antolatutako gazteriako ekintzak.	Indarraldia: urtebetekoa. Itunpeko dirulaguntza mota, non hitzarmenak eta ordenantza orokorrak ezartzen dituzten baldintza guztiak.

ESKU8c92eb32-02e5-4b63-96ae-845e66ae6776

OIARTZUNGO UDALA

8. lerro estrategikoa: Kirolaren sustapena

Helburu orokorra: Oiartzunen jarduera fisikoa sustatzea, herritar aktiboak eta osasuntsuak heztea eta kirolaren bitartez herritarren ongizatea bermatzeko kirol-taldeei eta eragileei genero ikuspegia bermatuz laguntzea.

Programaren deskribapena	Helburua	Hartzaileak	Dirulaguntza mota	Zenbatekoa	Adierazleak	Ekintza plana: oinarri arautzaileek izan beharreko oinarrizko lerroak eta plana gauzatzeko egutegia
Pilota sustatzea	Gazteen artea pilotako modalitateen jarduna sustatzea	Oiarpe Kirol Kluba	Itunpekoa	20.000,00 euro	Urteko memoria tekniko jarduera-planaren betetze-maila, antolatutako gazteriako ekintzak.	Indarraldia: denboraldikoa (2026ko irailetik, 2027ko ekainera. Itunpeko dirulaguntza mota, non hitzarmenak eta ordenantza orokorrak ezartzen dituzten baldintza guztiak.

Dirulaguntza hauek ordaintzeko kontuan izango da 38/2003 dirulaguntza arautzen dituen Lege Orokorra, Oiartzungo Udal Ordenantza Orokorra, 2025-2027rako dirulaguntza Plan Estrategikoa, eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea.

Bigarrena.- Erabaki hau jendaurrean jartzea 30 egun balioduneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta web orrian argitaratuz, nahi duenak espedientea aztertu eta bere kasuan, alegazioak edo erreklamazioak aurkez ditzan. Epe hori igarota alegaziorik edo erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, onartutako Plan Estrategikoaren 4. aldaketa behin betiko onartutzat joko da.

Hirugarrena.- Dirulaguntza hau ordaintzeko, taulan jasotako diru kopuru partida izendunak sortuko edo handituko dira dagozkion aurrekontuetan.

Alkateak azalpena eman ondoren, teknikarien, idazkariaren eta kontuhartzailearen txostenak eta Antolaketa eta Kontu bereziak batzordeak 2026ko ekainaren 18an emandako diktamenarekin adostasunean Udalbatzak, aho batez, onartu zuen 2025-2027 ekitaldietarako dirulaguntzen Plan Estrategikoaren 4. Aldaketa.

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	14	11 EH Bildu, 3 EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa		

ESKU8c92eb32-02e5-4b63-96ae-845e66ae6776

OIARTZUNGO
UDALA

-IV-

Alkateak Ibon Mitxelena zinegotziari hitza ematen dio gaia azaldu dezan.

ARGITURRI KOOPERATIBA SOZIETATEAREN BAZKIDE LAGUNTZAILE IZATEKO PROPOSAMENA

ARGITURRI Energia Berriztagarrien Komunitate Kooperatiba Elkarteak Oiartzungo udalari bazkide laguntzaile gisa sartzeko eskaera egin dio.

Udalak beste erakundetan sartzeko prozedurari jarraiki, egokitasun eta komenigarritasun Memoria justifikatzailea egin da eta bertan parte-hartze hori bateragarria den toki-erakundeei aplikatu beharreko araubide juridikoarekin, udal eskumenekin eta interes publikoaren printzipioarekin alderatu da. Horretarako ARGITURRI Energia Berriztagarrien Komunitatearen estatutu sozialak, Oiartzungo Energia Ekintza Planeko etxebizitzen eta zerbitzuen esparruko neurriak ezartzeko Oiartzungo energia berriztagarri komunitatearen baliagarritasunari buruzko txostena, Europako, Estatuko eta Euskal Autonomia Erkidegoko energia-komunitateei buruzko araudia eta Toki Araubidearen eta sektore publikoaren araubide juridikoa aztertu dira..

Memoriak dionaren arabera, Oiartzungo Udal Osoak 2024ko irailaren 25ean egindako osoko bilkuran Oiartzungo Klima eta Energia Jasangarriaren Tokiko Plana hasieraz onartu zuen. Plan horren helburuen artean daude energia-kontsumoa murriztea, energia-eraginkortasuna sustatzea, energia berriztagarrien erabilera handitzea eta herritarren parte-hartzea indartzea.

Bestalde, Oiartzungo herritarrek ARGITURRI Energia Berriztagarrien Komunitate Kooperatiba Elkartea eratu dute, energia berriztagarrien sustapena, autokontsumo kolektiboa, energia-eraginkortasuna eta energia-pobreziaren aurkako jarduketak bultzatzeko helburuarekin. Gainera irabazi asmorik gabeko entitatea da, bere Estatutuetan ezarritakoaren arabera.

Kooperatibak 2026ko ekainaren 8an aurkezturiko idazkiaren bidez Oiartzungo Udalak bazkide laguntzaile izaera hartzea eskatu du, 1.000 euroko ekarpen ekonomikoaren bidez.

Udal idazkariak egindako txostenaren arabera, Europar Batasuneko araudiak, Estatuko araudiak, bereziki 24/2013 Legea, abenduaren 26koa, Sektore Elektrikoarena, 23/2020 Errege Lege Dekretua, energia-komunitateak sektore elektrikoko subjektu gisa aitortzen dituena, eta 244/2019 Errege Dekretua, Autokontsumo elektrikoaren baldintza administratibo, tekniko eta ekonomikoak arautzen dituena, eta 7/2021 Legea, maiatzaren 20koa, Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzkoa; eta autonomia erkidegoko legediak, 4/2019 Legea, otsailaren 21ekoa, Euskadiko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa eta 1/2024 Legea, otsailaren 8koa, Energia Trantsizioari eta Klima Aldaketari buruzkoa, zeinaren 24.6 artikuluan ezartzen den Euskal administrazio publikoek herritarren energia-komunitateen eta energia berriztagarrien komunitateen garapena sustatuko dutela, udalek energia-komunitateen partaide izateko aukera eta gomendioa zabaldu dute.

Toki Korporazioen eskumenei begira berriz, 7/2026 E. Dekretu-legeak Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 25.2 artikuluan, eskumenen zerrendan atal berri baten bitartez, udalei honako eskumen propioak aitortu dizkie:
“p) Herritarren energia-komunitateak eta energia berriztagarrien komunitateak sustatzea eta horietan parte hartzea, jarduten duten udalerrietan ingurumen-, ekonomia- edo gizarte-onurak lortzen laguntzeko, bai eta energia-trantsizioko jarduerak bultzatzea ere, hala nola energia-eraginkortasuna, elektrifikazioa eta autokontsumoa sustatzea", horrenbestez, klima-aldaketaren aurkako politikak eta energia-eraginkortasuneko neurriak udal eskumen propioen barruan aitortuz.

ESKU8c92eb32-02e5-4b63-96ae-845e66ae6776

Bere aldetik, 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak ere, eskumenen inguruko 17. artikuluan ingurumenaren babesa, energia-eraginkortasuna, jasangarritasuna eta klima-aldaketaren aurkako tokiko politikak jasotzen ditu.

Bukatzeko, 11/2019 Legea, abenduaren 20koa, Euskadiko Kooperatibei buruzkoak aurreikusten dituen bazkide moten artean, bazkide laguntzaileen figura aurreikusten du, kooperatibaren jardueran lagundu dezaketenak, jarduera kooperatibizatuan zuzenean parte hartzeko betebeharrik gabe eta ekarpen ekonomiko mugatuarekin.

Kooperatibako partaide izan ahal izateko beste elementu batzuk egiaztatu dira, horien artean, Argiturri kooperatiba irabazi asmorik gabeko erakundea dela, espedientean aurreikusitako jarduera ez duela energia merkatuan operadore ekonomiko gisa jardutea suposatzen, eta udalaren helburua ez dela energia saltzea, ez eta mozkin ekonomikoak lortzea ere. Ondorioz, ez da aurreikusten merkaturatzaile elektriko gisa jardutea, lehia baldintzak desitxuratzea eta operadore pribatuak ordezkatzea. Ondorioz, ez da merkatuaren gaineko eragin negatibo esanguratsurik identifikatzen.

Memorian adierazten den bezala, helburuak honakoak dira:

- energia-eraginkortasuna sustatzea,
- energia berriztagarrien erabilera handitzea,
- energia-pobreziaren aurka jardutea,
- herritarren parte-hartzea sustatzea,
- Oiartzungo Klima eta Energia Jasangarriaren Tokiko Planaren helburuak garatzea.

Horrenbestez, jarduera udal eskumenekin zuzenean lotuta dago batez ere 7/1985 Legearen 25.2 artikuluak zerrendaturiko eskumen propioen artean, p) atalarekin. Eta ingurumen, gizarte eta ekonomia arloko onurak sortzeko helburuekin loturak interes publikoaren betekizuna egiaztutzat ematea ekartzen du.

Udal idazkariak egindako txostenak honela laburbiltzen ditu ondorio juridikoak:

Lehenengoa.– Indarrean dagoen Europako, Estatuko eta Euskal Autonomia Erkidegoko araudiak berariaz ahalbidetzen du toki-erakundeek energia-komunitateetan parte hartzea.

Bigarrena.- 7/2026 E. Dekretu-Legeak Toki jaurbidearen araubideari buruzko 7/1985 legearen 25.2 artikuluan zerrendaturiko udalen eskumen propioen zerrendari p) atala gehitu dio eta bertan energia-komunitateetan parte-hartzea jaso da udalen eskumen propio gisa.

Hirugarrena.– ARGITURRI Energia Berriztagarrien Komunitatearen helburuak eta jarduerak bateragarriak dira Oiartzungo Udalaren eskumenekin eta Oiartzungo Klima eta Energia Jasangarriaren Tokiko Planarekin.

Laugarrena.– Ez da antzeman merkatuaren gaineko eragin negatibo esanguratsurik.

Bosgarrena.– Ez da antzeman oztopo juridikorik Oiartzungo Udala ARGITURRI Energia Berriztagarrien Komunitate Kooperatiba Elkarteko bazkide laguntzaile bihurtzeko.

Bere aldetik, udal ingurumen teknikariak egindako txostenaren arabera, egokia ikusten da Oiartzungo udala ARGITURRI kooperatiba sozietatearen bazkide laguntzailea egitea. Europako zuzentarauek hala azpimarratzen dute, energia berriztagarrien esparruan trantsizio justu bat lortzeko Energia modu lokalean sortzea, herritarren parte hartzea, egoera zahurrean dauden pertsonak komunitate berriztagarrian integratzeko aukera ematea eta elkartasun mekanismoak ezartzea sustatzea, bai-eta

ESKU8c92eb32-02e5-4b63-96ae-845e66ae6776

energia-komunitate berriztagarrien sorrerari eta horien garapenari bultzada eman eta garapenean laguntzea.

Udal honetako Idazkariaren eta Ingurumen teknikariaren txostenen baitan eta Lurralde batzordeak 2026ko ekainaren 17an emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzari, honako akordioa har dezan proposatzen zaio:

AKORDIOA

Lehenengoa.- Oiartzungo Udala ARGITURRI Energia Berriztagarrien Komunitate Kooperatiba Elkartean bazkide laguntzaile gisa sartzeko proposamena onartzea.

Bigarrena.- ARGITURRI Energia Berriztagarrien Komunitate Kooperatiba Elkartearen kide egiteko 1.000 €ko ekarpena onartzea.

Hirugarrena.- Kooperatibaren organo sozialetan udalaren ordezkaritzan parte-hartzeko Agustin Lekuona Irastorza eta ordezko Ibon Mitxelena Fernandez izendatzea.

Ibon Mitxelena jaunak amaitu ondoren Alkateak hitza hartzen du eta bozketari ekiten diote. Idazkariaren eta Ingurumen teknikariaren txostenen baitan eta Lurralde batzordeak 2026ko ekainaren 17an emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, aho batez, onartu zuen Oiartzungo Udala ARGITURRI Energia Berriztagarrien Komunitate Kooperatiba Elkartean bazkide laguntzaile gisa sartzeko proposamena.

Botazioa:

	Bozka kopurua	**Udal taldea/zinegotzia**
Alde	14	11 EH Bildu, 3 EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa		

-V-

OIARTZUNGO HIRI ANTOLAKETAKO PLAN OROKORRAREN 3. ALDAKETA, UDALERRIKO ERABILERA TURISTIKOAK ETA TURISMO-OSTATUKO ESTABLEZIMENDUEN HIRIGINTZA-ANTOLAMENDUARI DAGOKION ORDENANTZA ALDATZEA, BEHIN BETIKOZ ONARTZEA

AURREKARIAK

Udal honek 2026ko urtarrilaren 29ko oso bilkuran Oiartzungo Hiri Antolaketako Plan Orokorraren 3. aldaketari, udalerriko erabilera turistikoak eta turismo-ostatuko establezimenduen hirigintza-antolamenduari dagokion ordenantza aldatzeko dokumentuari, 2025eko abenduan idatzitakoari, hasierako onarpena ematea erabaki zuen.

Plan Orokorraren aldaketaren hasierako onarpena jendaurrean jarri zen, 45 eguneko epean, udaletxeko iragarki-oholean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta hedapen handiagoko egunkari batean iragarkia jarriz, eta eskumena duten administrazio sektorialei jakinarazi zitzaien euren txostenak Planaren zehaztapenetan sartzeko ondorioekin. Espedientean jasota gelditu den moduan, jendaurreko tramitean ez da alegaziorik izan.

HAPOaren aldaketaren helburua Oiartzungo Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren barruan, erabilera turistikoko logelak, eta bereziki ostatu-erabilerak (ostatuko establezimenduak eta erabilera turistikoko etxebizitzak) modu egokitu, ordenatu eta proportzionalean arautzea, udalerriak bermatu beharreko

ESKU8c92eb32-02e5-4b63-96ae-845e66ae6776

interes publiko nagusiak kontuan hartuta, horien artean, hiritarrek etxebizitzarako duten eskubidea, bizikidetza eta ordena publikoa, ingurumen-jasangarritasuna eta lurralde-oreka eta kontsumitzaileen bermea eta segurtasuna.

Aldaketa hirigintza-araudi orokorreko artikuluen zati bat proposatutako helburuetara egokitzera mugatzen da, zehazki, honako artikulu hauetan: 19. artikulua. Lurzoruaren hirigintza-erabilerei buruzko araubidea. 36. artikulua. Erabilera baldintzak eta etxebizitza kopurua. 37. artikulua: Behe-solairuetan erabilera baldintzak. 39. artikulua: Goi-solairuetako erabilera baldintzak. 40. artikulua: Estalkipeko erabilera baldintzak. 54. artikulua: Kasko tradizionalen azpieremuetarako etxebizitzen erabilerak eta kopurua arautzea. 60. artikulua: Egoitza-azpizona intentsiboetarako berariazko araudia. 62. artikulua: Garapen txikiko egoitza-azpizonetarako baimendutako erabilerak eta 73. artikulua: Jarduera ekonomikoetarako lursailetan erabilerak arautzea.

Aurrekariei dagokionez, Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 90.1 artikuluak eskaturiko txosten sektorialak eskatu eta udal zerbitzu teknikoek, Hiritik At aholkularitzaren laguntzarekin, HAPOaren aldaketarako agiriak idatzi zituzten. 2025/07/23an Partehartze Programan fase honetarako aurreikusitako saioak egin ziren, Plangintzako Aholku Kontseiluarena barne. Ezarritako epean jasotako txosten sektorialak, Eusko jaurlaritzako Kultura eta hizkuntza politikako Sailarena, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Hiri Agendarena eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Oreka Berdearen Departamentuarena, aldekoak izan ziren. Horien ondorioz ez zen egokitzapen nabarmenik egin hasierako onarpeneko dokumentuan, ez baitzituzten ezarri lehen bertsioan kontuan hartu ez zen baldintzarik.

Tramitazioan zehar udal arkitektoak txostena eman zuen aldaketaren interes orokorreko arrazoietan oinarria duela eta dokumentuak duen arrazoiaren edo funtsaren justifikazio espresa jasotzen dituela ondorioztatu dela.

Udal hirigintza teknikariak esku hartzeko irizpideek ekartzen dituzten neurriei buruzko txostena egin zuen, Erabilera Turistikoko Logelak (ETL), Erabilera Turistikoko Etxebizitzak (ETE) eta ostatu-establezimenduak ezartzeko araudiaren baldintzak zehazten dituena.

Ingurumen-ebaluazio estrategikoari dagokionez berriz, Industria, trantsizio energetiko eta jasangarritasun saileko Ingurumen sailburuordetzak, 2025/07/22an emandako txostenaren arabera, HAPOaren aldaketak hirilur eta lur urbanizagarri bezala sailkaturiko eremuei eragingo die, eta ez du lur ez urbanizagarri bezala sailkatutako eremuan ondoriorik izango. Hain zuzen ere, Oiartzunen turismo erabileren eta ostatuen araubide berriak ingurumenean eraginik ez duela izango edo izatekotan eragina positiboa izango dela zehazten da dokumentuan; beraz, planak ez du ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura izapidetu behar, ingurumen-ebaluazioaren prozeduraren helburutik eta xedetik kanpo dagoelako.

Hasierako onarpenaren ondoren, arlo sektorialean eskumenak dituzten organoei txostena eskatzeko tramitea burutu zen. Gauzak horrela honako txostenak eskatu dira: Confederación Hidrográfica del Cantábrico delakoari, Eusko jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika sailari, Turismo sailari, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ondare departamentuari, Ministerio para la Transformación Digital delakoari eta URAk Uraren Euskal Agentziari.

Udal sarrera erregistroan jasotako txostenak honakoak izan dira: udal ur zerbitzu buruaren txostena, 2026/02/11koa, aurkezten den HAPOaren ordenantzaren aldaketak udal baliabide hidrikoen kudeaketarako onuragarri izan litekeela ondorioztatzen duena. Aldundiko Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Departamentuak, 2026/03/11ko txostenean, komenigarria jotzen du, aldaketa baliatuz, egun udal katalogoan dauden eta HAPO-aren aldaketak eragina izan lezakeen elementu/eraikinen inguruan hausnarketa egitea; eragina izan dezaketen eta ondare balioak dituzten baserri/eraikin guztiak katalogoan dauden ala ez eta eskuhartzeen inguruko araubidea modu egokian jasotzea. Ministerio para

ESKU8c92eb32-02e5-4b63-96ae-845e66ae6776

la Transformación Ecológica delakoaren Urren Komisariak, 2026/03/24ean, URA Uraren euskal Agentziari helarazi diola jakinarazten du. Ministerio para la Transformación Digital delakoaren telekomunikazio idazkaritzak, 2026/04/10ean, aldeko txostena ematen du zera ohartaraziz, 2015/03/25eko Oiartzungo Hiri Antolaketarako Plan Orokorra Telekomunikazioei buruzko, ekainaren 28ko, 11/2022 Lege Orokorrari egokitu behar dela eta, bitartean, araudi horren kontrako aurreikuspenak deusezak izango direla. Bere aldetik, URAren Euskal Agentziaren, 2026/05/13an eta 2026/06/16an, eta Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren data bereko txostenak aldeko irizpena ematen dute azken honek lur urbanizagarrietako garapen plangintzen inguruan berriro txostena eskatu beharko dela adieraziz.

Udal arkitektoak aldeko txostena egin dio eta udal idazkariak aplikatu beharreko legediari buruzko txostena eman du jarraitutako tramitazioa egokia dela adieraziz.

Bukatzeko, udal idazkariak egindako ziurtagiriaren arabera, Oiartzungo Plangintzako Aholku Kontseiluak, 2026ko ekainaren 10ean egindako bilkuran, Hiri Antolaketako Plan Orokorraren 3. aldaketaren dokumentuari aldeko txostena egin zion eta udalak, Hiri Antolaketako Plan Orokorraren 3. aldaketari behin behineko onarpena jasotzeko idatzitako proiektua txosten hori kontuan izanda idatzi du.

Aurreko aurrekariak ikusita, aplikatu beharreko araudia kontuan hartuta, espedientean dagoen txosten juridikoan oinarrituta, uste da ebazpen-proposamen hau aplikatzekoa den legeriara egokitzen dela. Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 90. eta 104. artikuluetan, Lurraldearen Antolamendurako Planak eta Hirigintza Antolatzeko Tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 28. eta 36. artikuluetan eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.c) eta 47.2.ll) artikuluetan ezarritakoaren arabera, eta ondorio horietarako, Udalbatzari honako akordioa har dezan proposatzen zaio:

AKORDIOA

Lehena.- Oiartzungo Hiri Antolaketako Plan Orokorraren 3. aldaketari, udalerriko erabilera turistikoak eta turismo-ostatuko establezimenduen hirigintza-antolamenduari dagokion ordenantza aldatzeko dokumentuari behin-behineko onarpena ematea.

Bigarrena.- Behin-behinean onartutako Plan Orokorraren aldaketa Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeari bidaltzea, dagokion txostena egin dezan. Txosten hori loteslea izango da Plan Orokorraren aldaketa lurralde-antolamenduko tresnetara eta beharrezko alderdi sektorial guztietara egokitzeari dagokionez. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen txostena zuzenean jakinaraziko dio kide anitzeko organo horrek udalari, planaren berrikuspena izapidetzen jarraitzeko. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 91.3 artikuluaren arabera, batzordeak txostena jaso eta hiru hilabeteko epean txostenik egin ez badu, izapidearekin jarraitu ahal izango da.

Hirugarrena.- Udalak Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen txostena jaso ondoren, zerbitzu teknikoek haren edukia Plan Orokorraren aldaketan sar dezaten agintzea.

Alkateak azalpenak eman ondoren, Udal arkitektoak eta Idazkariaren txostenen baitan eta Lurralde batzordeak 2026ko ekainaren 17an emandako diktamenarekin adostasunean Udalbatzak, aho batez, onartu zuen Oiartzungo Hiri Antolaketako Plan Orokorraren 3. aldaketari, udalerriko erabilera turistikoak eta turismo-ostatuko establezimenduen hirigintza-antolamenduari dagokion ordenantza aldatzeko dokumentuari behin-behineko onarpena ematea.

Botazioa:

	Bozka kopurua	**Udal taldea/zinegotzia**
Alde	14	11 EH Bildu, 3 EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa		

ESKU8c92eb32-02e5-4b63-96ae-845e66ae6776

ARRAGUAKO ARR-1A ETA ARR-1B EREMUEN ANTOLAMENDUZKO HIRIGINTZA-HITZARMENA

AURREKARIAK

Hirigintza Zerbitzuak 2025eko maiatzean proposamena aurkeztu zuen Arragua auzoko ARR-1A eta ARR-1B eremuen antolaketa eta garapen urbanistikoaren inguruko Hirigintza Hitzarmena onartzeko prozedura izapidetzea komeni dela adieraziz, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen Zazpigarren Xedapen Gehigarrian ezarritakoaren arabera.

Ondoren, Eusko Jaurlaritza ARR-1B dituen eskubideak gauzatzeko baldintzetan adostasun prozesua ireki zen eta aurtengo maiatza arte hitzarmenaren edukia zehazteko bidea egin da.

Geroztik, Britac Proyectos S.L. Arraguako ARR-1A eta ARR-1B eremuen lursailen jabetzaren gehiengoa duen sustatzaileak, udalarekin hitzarmena izenpetu nahi duela eta dokumentua tramitaziora jartzeko eskaera egin du.

Hitzarmenaren xedea, Arragua auzoko eremuak, hiri-lurzoruko ARR-1A eremua eta ARR-1B lurzoru urbanizagarriko sektorea antolatzeko irizpideak ezartzea, hurrenez hurren 12.560 m²-ko eta 66.632 m²-ko azalerarekin, interes publikorako onuragarriak diren hirigintza-parametroak definitzea, Oiartzungo Hiri Antolaketako Plan Orokorrak (GAO 2015/05/12) auzoarentzat jarritako helburuak betetzea eta udalak hirigintza-ekintzak sortutako gainbalioetan duen zesio eskubidea gauzatzeko modua zehaztea da. Horretarako, plangintza gauzatzearen ondoriozko eraikigarritasunen eta kargen banaketa onestea, adostutako haztapen-koefizienteen arabera, eta eraikigarritasun haztatua urbanizazio-kargarik gabe Oiartzungo Udalari lagatzeko legezko betebeharra gauzatzeko modua adosten dira.

Hitzarmena ARR-1 eta ARR-1B eremuetan gehiengoa duen jabearekin sinatu beharko da, hau da, BRITAC PROYECTOS S.L. enpresarekin.

Udal idazkariak egindako txostenaren arabera, hitzarmen oinarri juridikoa Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 27. artikulua eta zazpigarren xedapen gehigarrian aurkitu liteke. Izan ere, Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta toki-erakundeek hitzarmenak sinatu ahal izango dituzte, batera edo bereizita, pertsona publiko edo pribatuekin, pertsona horiek lursailen jabe izan edo ez, hirigintza-jarduera ahalik eta ondoen eta modu eraginkorrenean garatzen laguntzeko. Eta horien artean, hirigintza-antolamenduari buruzko hitzarmenak daude, indarrean dagoen plangintzan egin daitezkeen aldaketen edukia zehazteko eta hirigintza-betearazpeneko hitzarmenak, zeinaren arabera hitzarmena egiten den unean indarrean dagoen plangintza kudeatzeko eta egikaritzeko baldintzak ezartzen diren.

Britac Proyectos S.L.ek aurkezten duen hitzarmena bi izaera ditu eta antolamenduko hitzarmena den aldetik, udalak plangintza-ahalmen osoa gordeko duela azpimarratu behar da, interes publikoko arrazoiengatik. Bestalde, dagokion hirigintza-eraikigarritasuna erkidegoari eskudirutan ordainduz lagatzeko legezko betebeharra betetzea adosten den hitzarmenetan, betiere salbuespen gisa eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean aurreikusitako baldintzetan, edo ondasunen edozein eskualdaketa edo truke adosten den hitzarmenen kasuan, perituaren balorazioa sartu beharko da, udal zerbitzu teknikoek emana edo berretsia.

Sektore Publikoaren araubidea onartzen duen 40/2015 Legearen ondorioz, hitzarmen ororekin batera, justifikazio-memoria bat aurkeztu beharko da, honako hauek aztertzeko: hitzarmenaren premia eta egokitasuna, eragin ekonomikoa, jardueraren kontraktuala ez dela izaera eta legeriak ezartzen dituen

ESKU8c92eb32-02e5-4b63-96ae-845e66ae6776

gainerako baldintzak. Espedientean jaso den bezala aipatu memoria idatzi da eta aipatu aspektuak aztertu dira.

Udal arkitektoak egindako txostenaren arabera sustatzaileak proposatzen duen hitzarmenaren baldintza ekonomikoak udal interesarentzako onuragarriak dira.

Udal idazkariak egindako txostenak honako aspektuak ere errepasatzen ditu: Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 53.1 artikuluak berariaz ezartzen duela sektore publikoko erakundeek elektronikoki bidali behar dizkiotela Kontuen Auzitegiari edo autonomia-erkidegoko kanpoko fiskalizazio-organoari, eta Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen betebeharrei buruz.

Esandakoarengatik, aplikatu beharreko legeria ikusita, udal teknikariek ondorioztatzen dute Arraguako ARR-1A eta ARR-1B eremuen antolaketa eta kudeaketa adosteko hitzarmen urbanistikoaren proiektuko akordioa egokia dela.

Aipatu 2/2006 Legearen 27 artikuluaren ondorioz Oiartzungo Udalari % 15a lagatzeko legezko betebeharra gauzatzeko moduaren inguruan Arraguako kasuan, udalak zesioa orubean edo partzelan ez hartzeko arrazoiak daude:

1.- Hitzarmen honek aurrekaria du udalak eta eremuaren jabetza nagusiak 2009an sinatutako hitzarmenean eta hartan % 15aren zesioa 4.000 m² behe solairuko eraikigarritasunean eta gainerako kopurua dirutan entregatuz gauzatzen da. Sustatzaileak antzeko formula bat errepikatzea eskatu du. Jakina den bezala, hitzarmen urbanistikoak sinatzaileek elkarrekiko hartzen dituzten konpromisoak jasotzen dituzte, hau da, harreman sinalagmatikoak sortzen dituzte, elkarrekiko edo aldebiko betebeharrez osatutakoak. Ondorioz, 2009an sinaturiko hitzarmenaren edukiak udala behartzen du eta, sustatzaileak horrela eskatuta, % 15aren zesioa gauzatzeko moduan ezinbesteko aurrekaria errespetatzeko beharrean dago.

2.- Arraguako ARR-1A eta ARR-1B eremuen aurreko hitzarmenaren eta aurreko antolamendu xehatuaren ezaugarria zen etxebizitza babestuaren estandarren zati bat beste eremu batzuetarako lekualdatzen zela. Zehazki, hiri lurzoruko ARR-1A areak etxebizitza guztia salmenta librekoa jasotzen zuen. Berari zegokion 2.156 m² VPO etxebizitzen eraikigarritasuna eta beste hainbeste etxe tasatuena, ARR-1Bra eramaten ziren (1.907 m² etxe tasatuenak eta 941 m² VPOkoenak) eta Ugaldetxoko UGA-1A eremura (549 m² etxe tasatuenak eta 1.215 m² VPOkoenak). Sustatzailearekin adostutako aldaketak berriz eremu bakoitzak bere estandarrak betetzeko helburua zuen eta horrela lortu da.

3.- Etxebizitza politikan eragiteko eta etxebizitza babestuak eremu guztietan txertatzeko helburuak, Arraguako kasuan, soberan betetzen dira, eremuen etxe kopuruaren % 46 pasa alokairuzko etxebizitza sozialak izango direlako. Gainerakoen artean, 18 etxe salmentako VPO izango dira eta beste 72 udal araubideko etxe tasatuak. Hau da, eremu osoko % 67,67 etxe babestuak izango dira. Ondorioz, etxebizitza-arloko politika publikoaren helburuak nabarmen betetzen dira. Kontuan izan Arraguako bi eremuen artean 291 etxe babestuak egingo direla 2/2006 Lurzoru Legearen eta 45/2025 Estandarren Dekretuen arabera etxe babestuen estandarra 287ko emaitza ematen duenean eta Estatuko 7/2015 RDLren ondorioz etxe babestuen gutxieneko kopurua 152 denean.

Beraz, babes publikoko partzelaren jabari osoa Eusko Jaurlaritzari dagokionez - babes sozialeko etxebizitza politika garatzeko-, Udalak ezin du babes sozialetako etxebizitzara bideratutako partzela beretzat jaso. Edonola ere, legearen izpiritua erabat betetzen da, administrazio publikoaren esku geratzen baita babes publikoko etxebizitzak garatzeko partzela nabarmenena, alokairu sozialera bideratua izango dena, gainera.

4. Bukatzeko, proposamenak oinarria du eremuarekiko jarri diren interes publikoko helburuetan:

ESKU8c92eb32-02e5-4b63-96ae-845e66ae6776

Arraguan egingo den etxebizitza kopurua oso handia izango da, egun dagoen etxebizitza parkea bikoiztu baino gehiago egiten du eta hori, berez dentsitate handia duen eremu batean, udalaren zerbitzuen presentzia hasiera hasieratik areagotzeko beharra ekartzen du. Eremuetako garapenerako plangintzak idazterakoan, Plan Partziala eta Plan Berezia, egindako genero eta hizkuntzaren gaineko eraginen ebaluaketak nabarmendu dute, batetik, sustapena eta eraikuntza faseka egiteko beharra eta, bestetik, ekipamendu eta zuzkidura publikoak tartekatu eta Arraguako auzo osoari erantzuna eta zerbitzua emateko modukoak izateko beharra. Horien artean aparkalekuak lehentasunez burutzea ezinbesteko ikusi den bezala, udal zerbitzuak bertaratzeko lokalak izatea eta lehen fasetatik aktibatzea gomendagarritzat jo da. Kontuan izan behar da 2/2006 Lurzoru Legeak berak, 27.4 artikuluaren azken esaldian, aurreikusten duela gauzazko entrega hori, kasu horretan % 15aren diruzko zenbatekoaren baliokide diren etxebizitzetan. Beraz, Arraguako kasuan, interes publikoak ekartzen duena moldaketaren poderioz, lokalen gauzazko entrega bideragarria eta legezkoa dela esan liteke.

Udal honetako Idazkariaren eta Kontuhartzailearen txostenen baitan eta Lurralde batzordeak 2026ko ekainaren 17an emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzari, honako akordioa har dezan proposatzen zaio:

AKORDIOA

Lehenengoa.- Oiartzungo udala eta Britac Proyectos S.L.ren arteko Arraguako ARR-1A eta ARR-1B eremuetako antolamendu eta kudeaketa xede duen antolamendu-hitzarmenaren testua hogei egunez jendaurrean jartzea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki-oholean iragarkia jarriz. Epe horretan egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango dira.

Halaber, interesdunen eskura egongo da Udal honen egoitza elektronikoan [helbidea: https://www.oiartzun.eus].

Bigarrena.- Zerbitzu teknikoek aurkeztutako alegazioei buruzko informazioa ematea.

Hirugarrena.- Txosten teknikoaren ondoren, bidali hirigintzako zerbitzuetara, ebazpen-proposamen-txostena egin dezaten.

Laugarrena.- Aurreko txostenekin, bidal bekio Lurraldeko Informazio Batzordeari, azter dezan eta behin betiko onespen-proposamena egin dezan, eta Osoko Bilkurari aurkeztuko zaio hurrengo bilkuran.

Alkateak azalpena eman ondoren, Idazkariaren eta Kontuhartzailearen txostenen baitan eta Lurralde batzordeak 2026ko ekainaren 17an emandako diktamenarekin adostasunean Udalbatzak, aho batez, onartu zuen Oiartzungo udala eta Britac Proyectos S.L.ren arteko Arraguako ARR-1A eta ARR-1B eremuetako antolamendu eta kudeaketa xede duen antolamendu-hitzarmena.

Botazioa:

	Bozka kopurua	**Udal taldea/zinegotzia**
Alde	14	11 EH Bildu, 3 EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa		

-VII-

OIARTZUNGO UDAL MUGAPEAN BIDAIARIEN HIRI-GARRAIO ZERBITZUA ETA HORRETARAKO BEHARREZKOA DEN AUTOBUSAREN -XORROLA- HORNIDURA KONTRATUA. KONTRATAZIO ESPEDIENTEARI HASIERA EMATEA

AURREKARIAK

ESKU8c92eb32-02e5-4b63-96ae-845e66ae6776

OIARTZUNGO UDALA

Oiartzungo udal mugapean bidaiarien hiri-garraio zerbitzuaren eta horretarako beharrezkoa den autobusaren -Xorrola- horniduraren kontrataziorako espedienteari (2026KO160001) hasiera eman zaio.

Espedientean barneratuta daude kontratuaren beharraren txostena/justifikazio memoria -kontratua loteetan ez banatzea, beharra eta baliabide-urritasuna justifikatzen dituena-, Baldintza Teknikoen Agiria eta Baldintza Ekonomiko-Administratibo Zehatzen Agiria; horien arabera zerbitzu kontratu administratibo baterako espedientea izapidetuko da, eta horren esleipena lehiaketa aske bidez izatea proposatzen da.

Udal kontu-hartzaileak kontratua egiteko gastuaren baimena eman du eta aurrefiskalizazio txostena egin du.

Honakoak dira kontratuaren ezaugarri nagusiak:
- Kontratuaren xedea: Oiartzungo udal mugapean bidaiarien hiri-garraio zerbitzua eta horretarako beharrezkoa den autobusaren -Xorrola- hornidura kontratatzea.
- Unitate sustatzailea: Obrak eta Zerbitzuak.
- Kontratu mota: Zerbitzu eta hornidura kontratu mistoa, zerbitzuarena izanik prestazio nagusia.
- Aurrekontua: kontratuaren hasierako iraupenerako (urtebete) 341.870,78 eurokoa da (BEZik gabe), gehi, % 10eko BEZari dagozkion 34.187,08 euro, 376.057,86 eurokoa (BEZ barne).
- Balio zenbatetsia: 1.709.353,90 euro (BEZik gabe)
- Epea: Urtebetekoa kontratua sinatzen denetik, urtebeteko lau luzapen ere aurreikusten dira, gehienez 5 urteko kontratua izango da. Hornidura-epea 4 hilabetekoa izango da.

Kontratazio teknikariak, udal-idazkariaren oniritziarekin, egindako txostena, Kontuhartzaileak egindako txostena eta Antolaketa eta kontu bereziak batzordeak, 2026ko ekainaren 18an, emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzari honako akordioa har dezan proposatzen zaio:

AKORDIOA

Lehena.- Oiartzungo udal mugapean bidaiarien hiri-garraio zerbitzua eta horretarako beharrezkoa den autobusaren -Xorrola- hornidura kontratu mistorako espedientea onartzea, jarraituko den prozedura irekia izango delarik, erregulazio harmonizatukoa, eta horri hasiera ematea. Halaber, onartzea kontratua araupetzeko Baldintza Ekonomiko-Administratibo Zehatzen Agiria, Baldintza Teknikoen Agiria eta baita gastua ere.

Gastua aurrekontuko honako partiden kontura izango da: 1 0221.227.441.10.08 2026 (5527) (A 12 2026-1414)

Bigarrena.- Kontratazio mahaia Oiartzungo Udaleko Kontratazio Mahai iraunkorra da, honela osatua dagoena:

Lehendakaria	**Agustin Lekuona Irastorza**	2. Alkateordea	Ordezkoa	**Garazi Urdampilleta Astibia**	Alkateordea
Bokala	**Janire Mitxelena Lecuona**	Zinegotzia	Ordezkoa	**Rafael Bergaretxe Urdampilleta**	Zinegotzia
Bokala	**Oiartzungo Udaleko idazkaria**		Ordezkoa	**Oiartzungo Udaleko giza baliabideetako teknikaria**	
Bokala	**Oiartzungo Udaleko kontu-hartzailea**		Ordezkoa	**Oiartzungo Udaleko diruzaina**	
Bokala	**Oiartzungo Udaleko kontratazio teknikaria**		Ordezkoa	**Oiartzungo Udaleko giza baliabideetako teknikaria**	

ESKU8c92eb32-02e5-4b63-96ae-845e66ae6776

OIARTZUNGO UDALA

Bokala	**Oiartzungo Udaleko jardueretako arkitekto teknikoa**	Ordezkoa	**Oiartzungo Udaleko obra eta zerbituetako arkitekto teknikoa**
Idazkaria	**Oiartzungo Udaleko kontratazio teknikaria**	Ordezkoa	**Oiartzungo Udaleko idazkaria**

Hirugarrena.- Kontratuaren arduraduna izendatzea udal arkitekto teknikoa.

Laugarrena.- Azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 63. artikuluak agintzen dituen eta kontratu honen lizitazio prozedura burutzeko beharrezkoak diren argitalpenak egitea.

Bosgarrena.- Kontratu honen iragarkia Europar Batasuneko Argitalpenen Bulegora bidaltzen den egunetik zenbatzen hasita 30 egun naturaleko epea ematea proposamenak aurkezteko.

Alkateak azaltzen amaitu ondoren. Kontratazio teknikariak, udal-idazkariaren oniritziarekin, egindako txostena, Kontuhartzaileak egindako txostena eta Antolaketa eta kontu bereziak batzordeak, 2026ko ekainaren 18an, emandako diktamenarekin adostasunean Udalbatzak, aho batez, onartu zuen Oiartzungo udal mugapean bidaiarien hiri-garraio zerbitzua eta horretarako beharrezkoa den autobusaren -Xorrola- hornidura kontratu mistorako espedientea.

Botazioa:

	Bozka kopurua	**Udal taldea/zinegotzia**
Alde	14	11 EH Bildu, 3 EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa		

-VIII-

GIZARTE BAZTERKETA ETA EKONOMIA LARRITASUN EGOEREI AURRE EGITEKO NORBANAKO ETA FAMILIENTZAKO LAGUNTZAK

AURREKARIAK

Gizarte bazterketa eta ekonomia larritasun egoerei aurre egiteko norbanako eta familientzako laguntzen Gizarte bazterketa eta ekonomia larritasun egoerei aurre egiteko norbanako eta familientzako babesgabetasun, menpekotasun edo gizarte bazterkeria egoerak prebenitu, ekidin edo gutxitzeko helburua duten udal laguntzak dira.

Udalaren aurrekontu exekuzio arauak, 27. artikuluan, horrela zehazten du:
"Gastuen baimenean eta erabileran eskumen arau hauek beteko dira:
Udalbatzarraren eskumena izango da aurrekontuaren ohiko baliabideen %10-etik gorako gastuen baimena eta erabilera, nahiz konpromisuzko kredituek finantzatzen dituztenena izan, eta 100.000,01 €-tatik gorakoak diru-laguntza eta ekarpenetan.
Gobernu Batzordearen eskumena izango da aurrekontuaren %5-etik aurrekontuaren %10 arteko gastuen baimena eta erabilera eta 50.000,01 €-tatik 100.000,00 €-tarainoko diru-laguntza eta ekarpenetan.
Lehendakariaren eskumena izango da aurrekontuaren ohiko baliabideen %5a arteko gastuen baimena eta erabilera eta 50.000,00 €-tarainoko diru-laguntza eta ekarpenetan"

Gizarte bazterketa eta ekonomia larritasun egoerei aurre egiteko norbanako eta familientzako laguntzen emateko irizpideak ezartzea eta dagokion gastu baimena ematea ere, Tokiko Gobernu Batzarrari zegokion, udalaren aurrekontuaren exekuzio arauetan xedatutakoaren arabera. Eskumen hori gauzatuz, erabakia 2025ko abenduaren 12an hartu zen, 2026ko ekitaldirako

ESKU8c92eb32-02e5-4b63-96ae-845e66ae6776

Beharrak gaur egun handitu dira eta hauei erantzuteko kreditu gehiago behar denez Udal Osoko Bilkurari dagokio oinarriak eta gastua baimentzea.

Kontuhartzailetzatik kreditu horiek eduki ahal izateko dagozkion espedientean izapidetzen ari da.

Gizarte bazterketa eta ekonomia larritasun egoerei aurre egiteko norbanako eta familientzako laguntzak arautzen dituen indarreko araudia eta udalerriko behar sozialak betetzeko baliabideen esleipen egokia bermatzeko, Gizarte teknikariak eta Kontuhartzaileak egindako txostenen baitan eta Herritarren Batzorde Informatzaileak, 2026ko ekainak 17an, emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzari honako akordioa har dezan proposatzen da:

AKORDIOA

Bakarra.- Udal Osoko Bilkurak Gizarte bazterketa eta ekonomia larritasun egoerei aurre egiteko norbanako eta familientzako laguntzak finantzatzera bideratutako aurrekontu osoa onartzea, 106.200,00 €ko zenbatekoarekin, 2026ko ekitaldirako eta aplikagarri diren banaketa irizpideak bere horretan onartzea eta indarrean mantentzea, aurretik ezarritako baldintzak eta prozedurak errespetatuta.

Alkateak ebazpen proposamena azaldu du eta bozketari ekin dio. Gizarte bazterketa eta ekonomia larritasun egoerei aurre egiteko norbanako eta familientzako laguntzak arautzen dituen indarreko araudia eta udalerriko behar sozialak betetzeko baliabideen esleipen egokia bermatzeko, Gizarte teknikariak eta Kontuhartzaileak egindako txostenen baitan eta Herritarren Batzorde Informatzaileak, 2026ko ekainak 17an, emandako diktamenarekin adostasunean Udalbatzak, aho batez, onartu zuen, Gizarte bazterketa eta ekonomia larritasun egoerei aurre egiteko norbanako eta familientzako laguntzak finantzatzera bideratutako aurrekontu osoa.

Botazioa:

	Bozka kopurua	**Udal taldea/zinegotzia**
Alde	14	11 EH Bildu, 3 EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa		

-IX-

2025. EKITALDIARI DAGOKION KONTU OROKORRA ONARTZEKO PROPOSAMENA

2026ko apirilaren 22an egindako Antolaketa eta Kontu Bereziak Batzorde Informatiboan 2025eko ekitaldiari dagokion Kontu Orokorra eta dagozkion eranskinak aztertu ondoren,

Ikusita batzorde horrek aldeko txostena eman zuela Oiartzungo Udalari dagokio 2025eko ekitaldiko Kontu Orokorrari buruz,

Ikusita Kontu Orokorra jendaurrean jarri zela Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarkiaren bidez, 2026ko maiatzaren 7ko 83. zenbakian, hamabost laneguneko epean, 2026ko maiatzaren 8tik 2026ko maiatzaren 28ra bitartean, abenduaren 19ko Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko 21/2003 Foru Arauaren 63. artikuluan xedatutakoaren arabera,

Ikusita Idazkariaren ziurtagiriaren arabera jendaurreko epean ez dela erreklamaziorik edo alegaziorik aurkeztu.

ESKU8c92eb32-02e5-4b63-96ae-845e66ae6776

Ikusita Oiartzungo Udalak 2025eko ekitaldiko Kontu Orokorra prestatu duela, Udalaren kontuak eta Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoaren kontuak, aplikatzekoa den kontabilitate-esparruarekin bat etorriz.

Eta ikusita Udalbatzari dagokiola 2025eko ekitaldiko Kontu Orokorra onartzea, honako akordioa har dezan proposatzen da:

AKORDIOA

Lehena.- 2025eko ekitaldiari dagokion Kontu Orokorra onartzea, Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoari dagozkion kontuak barne hartuta.

Bigarrena.- Kontu hori Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren esku jartzea, kanpo-fiskalizaziorako, eta dagokion dokumentazioa bidaltzea horretarako eskatzen denean edo aplikatzekoa den prozeduraren arabera.

Alkateak azalpena eman ondoren, 2026ko apirilaren 22an egindako Antolaketa eta Kontu Bereziak Batzorde Informatiboan emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, gehiengoz, onartu zuen 2025 urteko ekitaldiari dagokion kontu orokorra.

Botazioa:

	Bozka kopurua	**Udal taldea/zinegotzia**
Alde	11	EH Bildu
Aurka		
Abstentzioa	3	EAJ/PNV

-X-

2026/06 KREDITU ALDAKETA

AURREKARIAK

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu berehala egitea. Izan ere, horiek atzeratuz gero sortuko litzatekeen kalteak eragin nabarmena izango luke zerbitzuen kalitatean. Aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik aipatutako gastuei aurre egiteko.

Kontuhartzaileak egindako txostenen baitan eta Antolaketa eta Kontu Berezi Batzordeak, 2026ko ekainak 18an, emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzari honako akordioa har dezan proposatzen zaio:

AKORDIOA

Bakarra.- Kredituak sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko proposatzen da, ondoko taulako xehetasunaren arabera:

Kreditua transferituko duten gastu partidak (bajak)

Partida	**Izena**	**Hasierako kreditua**	**Murrizketa**	**Amaierako kreditua**
1 0341.226.231.00.98 2026	GIZARTERATZERAKO PROIEKTUA	75.500,00	7.151,00	68.349,00
GUZTIRA		**75.500,00**	**7.151,00**	**68.349,00**

ESKU8c92eb32-02e5-4b63-96ae-845e66ae6776

Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)

Partida (*)	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1 0341.480.231.30.01 2026	GIZA LARRIALDIETARAKO LAGUNTZAK	132.849,00	7.151,00	140.000,00
GUZTIRA		**132.849,00**	**7.151,00**	**140.000,00**

* Aurrekontuko partida berriak sortu ahal izango dira

Alkateak gaia azaldu ondoren, bozketari ekiten diote. Udalbatzak, aho batez, erabaki du 2026/06 kreditu aldaketa onartzea.

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	14	11 EH Bildu, 3 EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa		

-XI-

2026 KO GIZARTE LARRIALDIETARAKO LAGUNTZAK (GLL) EMATEKO IRIZPIDEAK

AURREKARIAK

Gizarte Larrialdietarako Laguntzak abenduaren 22ko 14/2022 Legean, Inklusiorako eta Dirusarrerak bermatzeko Euskal Sistemarena , jasotako diru-laguntzak dira. Laguntza horiek bizikidetza-unitate baten barruan egonik, gizarte-bazterketako arriskua edo egoerak prebenitzeko, saihesteko edo arintzeko beharrezkoak diren berariazko gastuei, ohikoei edo ezohikoei, aurre egiteko baliabide nahikorik ez dutenei zuzentzen zaizkie.

Udalaren aurrekontu exekuzio arauak, 27. artikuluan, horrela zehazten du:
"Gastuen baimenean eta erabileran eskumen arau hauek beteko dira:

Udalbatzarraren eskumena izango da aurrekontuaren ohiko baliabideen %10-etik gorako gastuen baimena eta erabilera, nahiz konpromisuzko kredituek finantzatzen dituztenena izan, eta 100.000,01 €-tatik gorakoak diru-laguntza eta ekarpenetan.
Gobernu Batzordearen eskumena izango da aurrekontuaren %5-etik aurrekontuaren %10 arteko gastuen baimena eta erabilera eta 50.000,01 €-tatik 100.000,00 €-tarainoko diru-laguntza eta ekarpenetan.
Lehendakariaren eskumena izango da aurrekontuaren ohiko baliabideen %5a arteko gastuen baimena eta erabilera eta 50.000,00 €-tarainoko diru-laguntza eta ekarpenetan"

Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL) emateko irizpideak ezartzea, bai eta dagokion gastu baimena ematea ere, Tokiko Gobernu Batzarrari zegokion, udalaren aurrekontuaren exekuzio arauetan xedatutakoaren arabera. Eskumen hori gauzatuz, erabakia 2026ko apirilaren 28an hartu zen, 2026ko ekitaldirako, otsailaren 24ko 21/2026 Dekretuan eta 2026ko martxoaren 31ko Aginduan ezarritakoarekin bat etorriz.
Beharrak gaur egun handitu dira eta hauei erantzuteko kreditu gehiago behar denez Udal Osoko Bilkurari dagokio oinarriak eta gastua baimentzea.

ESKU8c92eb32-02e5-4b63-96ae-845e66ae6776

Kontuhartzailetzatik kreditu horiek eduki ahal izateko dagozkion espedientean izapidetzen ari da.

Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL) arautzen dituen indarreko araudia eta udalerriko behar sozialak betetzeko baliabideen esleipen egokia bermatzeko, Gizarte teknikaria eta Kontuhartzaileak emandako txostenen baitan eta Herritarren Batzorde Informatzaileak, 2026ko ekainaren 17, emandako diktamenekin adostasunean, Udalbatzari honako akordioa har dezan proposatzen da:

AKORDIOA

Bakarra.- Udal Osoko Bilkurak Gizarte Larrialdietarako Laguntzak finantzatzera bideratutako aurrekontu osoa onartzea, 140.000,00 €ko zenbatekoarekin, 2026ko ekitaldirako eta aplikagarri diren banaketa irizpideak bere horretan onartzea eta indarrean mantentzea, aurretik ezarritako baldintzak eta prozedurak errespetatuta.

Alkateak ebazpen proposamena azaldu ondoren, Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL) arautzen dituen indarreko araudia, Gizarte teknikaria eta Kontuhartzaileak emandako txostenen baitan eta Herritarren Batzorde Informatzaileak, 2026ko ekainaren 17, emandako diktamenekin adostasunean Udalbatzak, aho batez, erabaki du Gizarte Larrialdietarako Laguntzak finantzatzera bideratutako aurrekontu osoa onartzea.

Botazioa:

	Bozka kopurua	**Udal taldea/zinegotzia**
Alde	14	11 EH Bildu, 3 EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa		

-XII-

2026-01 PRESKRIBATU ETA KOBRAEZINEN ZERRENDA (ISUNAK)

AURREKARIAK

Lehenengoa. Oiartzungo Udaleko Zergabilketa Zerbitzuak 2026-01 preskribatu eta kobraezinen zerrendari buruzko txostena egin du. Espediente horretan isun administratiboei dagozkien zenbait zor jasotzen dira, eta horien baja izapidetzea proposatzen da.

Bigarrena. Zergabilketa Zerbitzuaren txostenean bi egoera bereizten dira:

- Kobraezinak: premiamendu-bidean kobratzerik izan ez diren kredituak. Horien zenbateko nagusia, guztira, 16.161,82 eurokoa da.
- Preskribatuak: preskripzio-epea igaro delako baliogabetzekoak diren zorrak. Horien zenbateko nagusia, guztira, 3.110,00 eurokoa da.

Hirugarrena. Zerrenda xehatua espedientean jasota dago, bertan zordunaren identifikazioa, kontzeptua, urtea, espediente-zenbakia, zatia eta zenbateko nagusia adierazita.

Laugarrena. Oiartzungo Udaleko Zerga Ordenantza Orokorraren 8.3 artikuluak zorrak kobratzeko jarduketetan proportzionaltasun-printzipioa jasotzen du, eta, jarduketa horien emaitza negatiboa denean, kreditu kobraezinen aitorpenaren proposamena egitea aurreikusten du.

Bosgarrena. Gipuzkoako Lurralde Historikoko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 65., 66. eta 67. artikuluek preskripzioaren araubidea jasotzen dute: preskripzio-epeak, epe horien zenbaketa eta preskripzioa

ESKU8c92eb32-02e5-4b63-96ae-845e66ae6776

eteteko arrazoiak. Espedientean jasotako datuak aztertuta, egiaztatu da ez dela preskripzioa eteteko jarduketa eraginkorrik egin legezko epean.

Seigarrena. Gipuzkoako Lurralde Historikoko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 74. artikuluak baja behin-behinekoa arautzen du kaudimengabeziagatik, eta 177. artikuluak premiamendu-prozeduraren amaiera arautzen du. Era berean, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergabilketako Erregelamendua onartzen duen abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuaren 61., 62. eta 63. artikuluek zordun huts egina, kreditu kobraezina, kontuetan baja ematea eta kredituen birgaitzea arautzen dituzte.

Zazpigarrena. Kobraezintzat jotzen diren kredituen kasuan, baja kontablea egiteak ez du esan nahi zorra behin betiko desagertzen denik; izan ere, preskripzioa gertatu aurretik zordunaren kaudimen berria edo kobrantza ahalbidetzen duen ondasun edo eskubiderik agertuz gero, zorra berriro aktibatu ahal izango da, aplikatzekoa den araudiaren arabera.

Zortzigarrena. Udalbatzari dagokio espediente honetan jasotako zorrak kobraezintzat edo preskribatutzat jotzea eta, ondorioz, baja onartzea.

Horrenbestez, kontuhartzailetzako zergabilketa teknikariak egindako txostenaren baitan eta Antolaketa eta Kontu Bereziak batzordeak, 2026ko ekainak 18an, emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzari honako akordioa har dezan proposatzen zaio:

AKORDIOA

Lehenengoa.- Onartzea 2026ZB060001 espedientean jasotako **2026-01 kobraezinen zerrenda**, isun administratiboei dagokiena, guztira **16.161,82 euroko** zenbateko nagusiarekin.
Kreditu horien baja kontablea behin-behineko izaerarekin egingo da, eta horrek ez du eragotziko zor horiek birgaitzea, preskripzioa gertatu aurretik zordunaren kaudimen berria edo kobrantza ahalbidetzen duen ondasun edo eskubiderik agertuz gero.

Bigarrena.- Onartzea 2026ZB060001 espedientean jasotako **2026-01 preskribatuen zerrenda**, isun administratiboei dagokiena, guztira **3.110,00 euroko** zenbateko nagusiarekin.

Espedientean jasotako datuak aztertuta, egiaztatu da ez dela preskripzioa eteteko jarduketa eraginkorrik egin legezko epean; horrenbestez, zor horien baja egitea onartzen da, preskripzioagatik.

Hirugarrena.- Kontabilitate eta Zergabilketa Zerbitzuei agintzea erabaki honetan onartutako bajak egin ditzatela, espedientean jasotako zerrenda xehatuaren arabera.

Alkateak azalpenak eman ondoren, kontuhartzailetzako zergabilketa teknikariak egindako txostenaren baitan eta Antolaketa eta Kontu Bereziak batzordeak, 2026ko ekainak 18an, emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, aho batez, onartu zuen 2026-01 preskribatu eta kobraezinen zerrenda.

Botazioa:

	Bozka kopurua	**Udal taldea/zinegotzia**
Alde	14	11 EH Bildu, 3 EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa		

ESKU8c92eb32-02e5-4b63-96ae-845e66ae6776

OIARTZUNGO UDALA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO TRENBIDE SAREAREN LURRALDE PLAN SEKTORIALA BERRIKUSTEKO ETA EGOKITZEKO PROZEDURAN ESKATUTAKO UDALAREN INFORMAZIOA BIDALI IZANAREN BERRI EMATEA

2026ko ekainak 18an hartutako erabakia, 1257 zbk dekretua.

DEKRETUA

"Eusko Jaurlaritzaren Mugikortasun Jasangarriaren sailburuaren 2026ko apirilaren 15eko Aginduaren bitartez, EAEko trenbide sarearen Lurralde Plan Sektoriala (LPS) berrikusteko eta egokitzeko prozedura hastea erabaki da, eta berrikusketa prozedura hastearekin batera Herritarren Partaidetza Programa onartu eta Udalerriei Plana idazteko beharrezkotzat jotzen duten informazio orokor eta espezifiko guztia eskatzea erabaki da informazio hori igortzeko 2 hilabeteko epea emanez.

Udal arkitektoak egindako txostena ikusirik, gaiari dagokion udalerriaren honako informazio orokor eta espezifikoa bidaltzea proposatu da.

1. Udal osoko Bilkurako Batzarrak 2023/11/29an hartutako erabakia: "EAE-KO TRENBIDE SARE BERRIAREN INFORMAZIO AZTERKETA OSAGARRIA (ASTIGARRAGA-OIARTZUN-LEZO ZATIA) ENTZUNALDIAN OIARTZUNGO UDALAK ADIERAZITAKO DESADOSTASUNEI KONTSULTA IZAPIDEAN HARTUTAKO EBAZPENAREN BERRI EMATEA ETA BERRESTEA".
    a. Oiartzungo udalaren desadostasun txostena berrestea. (2020/08/11 eta 2023/11/29).
    b. Proposatutako trazaduraren bideragarritasun eza azpimarratzea.
    c. Subsidiarioki, trazadura alternatiboaren aurkezpena: SUPER-IPARRA alternatiba.

2. Oiartzun eta Lezo udalek landutako "KAMIOIEN MUGIKORTASUNA, DIAGNOSTIKOA ETA PROPOSAMENA. 2026 apirila" dokumentua.
    a. Trafiko-datuen azterketan eta jarduera ekonomikoari lotutako 150 enpresari egindako inkestetan oinarritutako diagnostikotik abiatuta, tren-azpiegituren eraginpeko eremuan kokatzen diren Lanbarren (Oiartzun) eta Iturrin (Lezo) industrialdeetarako sarbide- eta lotura-behar nagusiak identifikatzen dira. Horrenbestez, egoki deritzogu aipatutako eremu horietarako planteatutako errepide-loturak kontuan hartzea, lurralde-antolamendu eta mugikortasun ikuspegi integratu batetik, eta administrazio eskudunen plangintza-tresnekin behar bezala koordinatuta.
    b. Halaber, ETSk aurreikusitako trenbidearen desdoblamenduak —bereziki Arragua-Lanbarren tartean— izan ditzakeen afekzioak eta bateragarritasun-beharrak xehetasunez aztertzea beharrezkotzat jotzen da. Izan ere, eremu horrek garrantzi estrategikoa du Oiartzungo auzo eta inguruko industrialdeen irisgarritasunean eta salgaien mugikortasunean, eta, ondorioz, funtsezkoa da azpiegitura desberdinen arteko koordinazio eraginkorra bermatzea.
    c. Azkenik, adierazi nahi da aipatutako azterlana Oarsoaldeako udalek modu bateratuan landu eta Gipuzkoako Foru Aldundiari helarazi diotela, lurralde mailako arazo estruktural bati erantzun koordinatua emateko helburuarekin. Ildo horretan, egokitzat jotzen da administrazio desberdinen arteko elkarlana eta informazio-trukea indartzea —bereziki planifikazio estrategikoaren faseetan—, aurreikusitako jarduketak bateragarriak eta osagarriak izan daitezen.

3. PLANGINTZA URBANISTIKOA:
    a. Indarrean dagoen Hiri Antolaketa Plan Orokorra, 2015eko martxoaren 25ean onartutakoa.

ESKU8c92eb32-02e5-4b63-96ae-845e66ae6776

b. HAPOaren onarpenaren ondoren onartutako garapen plangintza. Trenbide sarearen eragin eremuan kokatzen dena:
   i. LIN 8. 2025eko irailaren 24an onartutako Plan Berezia.
   ii. ARR 1A. 2026ko apirilean onartutako Plan Berezia.
c. Tramitazioan diren HAPOaren aldaketak. Trenbide sarearen eragin eremuan kokatzen direnak:
   i. HAPOaren lehen aldaketa, dokumentuaren doikuntzak.
   ii. HAPOaren bigarren aldaketa, LIN 9 jarduera ekonomikoetarako eremua.

Horrenbestez, Toki Jaurbidearen Araudiak ematen dizkidan ahalmenen egikaritzan,

ERABAKI DUT

Eusko Jaurlaritzaren Mugikortasun Jasangarriaren sailburuaren 2026ko apirilaren 15eko Aginduaren bitartez, EAEko trenbide sarearen Lurralde Plan Sektoriala (LPS) berrikusteko eta egokitzeko prozeduran, Oiartzungo Udalari eskaturiko udalerriko informazio orokorra eta espezifikoa aipaturiko dokumentazioa bidalita erantzutea.

Alkate udalburuak agintzen eta sinatzen du.”

-XIV-

2026/03 KREDITU ALDAKETAREN BERRI EMATEN DA.

2026ko ekainak 9an hartutako erabakia, 1166 zbk. Dekretua.

“2026/03 KREDITU ALDAKETA. GEHIKUNTZA: 34.134,80 €

Ikusita Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, 2026-KALD-000003-00 zenbakiduna,

Ikusita Kontu-hartzaileak idatzitako txostenaren arabera espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Arestian aipatutako Foru Arauak 34.3 artikuluaren bitartez ematen dizkidan eskumenez baliatuz, eta toki Jaurbidearen Araudiak ematen dizkidan ahalmenen egikaritzan,

ERABAKI DUT

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

KREDITU GEHIGARRIAK

Kapituluak	**Izena**	**Gehikuntzak**
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	10.000,00
6	INBERTSIO ERREALAK	23.134,80
8	FINANTZA AKTIBOAK	1.000,00
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		**34.134,80**

ESKU8c92eb32-02e5-4b63-96ae-845e66ae6776

OIARTZUNGO
UDALA

FINANTZAKETA

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK	34.134,80
GUZTIRA		**34.134,80**

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzailetza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Udalbatzari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran."

-XV-

2026/04 KREDITU ALDAKETAREN BERRI EMATEN DA.

2026ko ekainaren 9an hartutako erabakia, 1169 zbk. Dekretua.

2026/04 KREDITU ALDAKETA. GAIKUNTZA: 13.149,00 €

"Ikusita Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gaikuntzaren modalitatekoa, 2026-KALD-000004-00 zenbakiduna.

Ikusita Kontu-hartzaileak idatzitako txosten eta ziurtagiriaren arabera espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 31. artikuluan ezarritakoarekin.

Arestian aipatutako Foru Arauak 31. artikuluaren 5. eta 6. apartatuen bitartez ematen dizkidan eskumenez baliatuz, eta toki Jaurbidearen Araudiak ematen dizkidan ahalmenen egikaritzan,

ERABAKI DUT

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gaikuntzaren modalitatekoa, proposamenean ageri den partidako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

GASTUAK

Kap.	Izena	Euroak
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	8.349,00
8	FINANTZA AKTIBOAK	4.800,00
GAITUTAKO KREDITUAK GUZTIRA		**13.149,00**

SARRERAK

Kap.	Izena	Euroak
4 (SARRERAK)	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	8.349,00
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK	4.800,00
FINANTZAKETA GUZTIRA		**13.149,00**

ESKU8c92eb32-02e5-4b63-96ae-845e66ae6776

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzailetza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Udalbatzari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran.

Alkate udalburuak agintzen eta sinatzen du."

-XVI-

2026/05 KREDITU ALDAKETAREN BERRI EMATEN DA.

2026ko ekainak 12an hartutako erabakia, 1207 zbk. Dekretua.

"2026/05 KREDITU ALDAKETA. TRANSFERENTZIA: 40.200 €

DEKRETUA

Ikusita Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, gastu partiden arteko kreditu transferentzien modalitatekoa, 2026-KALD-000005-00 zenbakiduna,

Ikusita Kontu-hartzaileak idatzitako txostenaren arabera espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 29. artikuluan ezarritakoarekin.

Ikusita Ogasuneko Batzorde Informatiboak egindako aldeko irizpena eta onarpen proposamena.

Arestian aipatutako Foru Arauak 29. artikuluaren 3. eta 4. apartatuen bitartez ematen dizkidan eskumenez baliatuz, eta toki Jaurbidearen Araudiak ematen dizkidan ahalmenen egikaritzan,

ERABAKI DUT

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu transferentzien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

Kreditua transferituko duten gastuak (bajak)

ESKU8c92eb32-02e5-4b63-96ae-845e66ae6776

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Murrizketa	Amaierako kreditua
1	PERTSONAL GASTUAK			
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	116.400,00	40.200,00	76.200,00
3	FINANTZA GASTUAK			
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK			
5	KREDITU GLOBALAK ETA BESTE USTEKABEAK			
6	INBERTSIO ERREALAK			
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK			
8	FINANTZA AKTIBOAK			
9	FINANTZA PASIBOAK			
	GUZTIRA	**116.400,00**	**40.200,00**	**76.200,00**

Kreditua jasoko duten gastuak (altak)

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1	PERTSONAL GASTUAK			
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN			
3	FINANTZA GASTUAK			
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	203.349,00	40.200,00	243.549,00
5	KREDITU GLOBALAK ETA BESTE USTEKABEAK			
6	INBERTSIO ERREALAK			
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK			
8	FINANTZA AKTIBOAK			
9	FINANTZA PASIBOAK			
	GUZTIRA	**203.349,00**	**40.200,00**	**243.549,00**

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzailetza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Udalbatzari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran.

Alkate udalburuak agintzen eta sinatzen du.”

-XVII-

2026KO KONTROL FINANTZARIOKO URTEKO PLANAREN BERRI EMATEN DA.

2026ko Kontrol Finantzarioko Urteko Plan honen helburua, udalaren barne-kontrolaren plangintza normalizatzea da.

ESKU8c92eb32-02e5-4b63-96ae-845e66ae6776

2024 eta 2025 ekitaldietan, kontuhartzailetzan dagoen informazioaren arabera, kontuhartzaileak ez du Kontrol Finantzarioko Urteko Planik osatu edo Udalbatzari jakinarazi. Horren ondorioz, 2025eko ekitaldiari dagokionez ezin da aurkeztu Plan horren exekuzioari buruzko memoriarik.

Gainera, egungo Kontu-hartzailetza berria da, eta oraindik ez dauka udalaren arrisku-maparen ezagutza osoa. Horregatik, 2026erako osatu duen Plana ez du jarduera guztien kontrol zabala egiteko tresna gisa planteatu, baizik eta barne-kontrolaren urteko plangintza berriro martxan jartzeko, arrisku-eremu nagusiak lehen aldiz modu sistematikoan identifikatzeko eta 2027ko plangintza oinarri sendoagoekin prestatzeko tresna gisa.

Planaren ikuspegia praktikoa eta proportzionatua izango da. Hau da, jarduketak Kontu-hartzailetzak dituen baliabideekin egiteko modukoak izango dira, eta lehentasuna, bolumen ekonomikoagatik, kudeaketa-konplexutasunagatik edo etorkizuneko hobekuntza-ahalmenagatik garrantzitsuak diren eremuei emango zaie.

ONDORIOA

2026ko Kontrol Finantzarioko Urteko Plana Oiartzungo Udalean barne-kontrolaren plangintza normalizatzeko lehen urratsa da.

Planak ez du udal jarduera ekonomiko-finantzario osoa berrikusteko asmorik. Aitzitik, baliabide erabilgarriekin egin daitezkeen jarduketa hautatuak jasotzen ditu, arrisku-eremu nagusien lehen diagnostikoa egiteko eta 2027ko plangintza hobetzeko.

Horretarako, bi jarduketa nagusi aurreikusten dira: dirulaguntzak, hitzarmenak eta ekarpenak aztertzea, eta itxitako ekitaldietako kobratzeke dauden saldoen egoera berrikustea. Horiez gain, kontratu txikiak eta gastu errepikakorrak aztertuko dira, finantzaketa lotua duten bi inbertsioren jarraipen mugatua egingo da, eta udalaren aurrekontu orokorrean sartzen diren partzuergoen kontrol-eremuari buruzko diagnostiko dokumentala egingo da.

Plan honen emaitzek aukera emango dute 2027ko Kontrol Finantzarioko Urteko Plana datu eta ondorio zehatzagoetan oinarrituta prestatzeko.

Horrenbestez, 2026ko Kontrol Finantzarioko Urteko Plan hau Udalbatzari jakinarazten zaio, Oiartzungo Udalean kontrol finantzarioaren plangintza normalizatzeko eta 2027ko ekitaldirako arrisku-maparen lehen oinarri praktikoak prestatzen hasteko.

-XVIII-

HARTUTAKO ERABAKIEN (ALKATETZAREN EBAZPENAK, GOBERNU BATZORDEKO AKORDIOAK) ETA PROTOKOLO GASTUEN BERRI EMATEA.

Alkateak Idazkariari hitza ematen dio eta Idazkariak honakoen berri eman die Udalbatza kideei:

1. Hartutako erabakiak:

   Alkatearen ebazpenak:
   2026eko maiatzaren 25etik ekainaren 19ra arte.
   Zk. 2026/1046tik 2026/1269ra.

   Tokiko Gobernu Batzarra:

ESKU8c92eb32-02e5-4b63-96ae-845e66ae6776

Bilkura honen deialdia egin zen eguna arte Tokiko Gobernu Batzarra bitan bildu da, 2026eko ekainaren 9an eta 23an, hain zuzen ere.

2. Protokolo eta ordezkapen gastuak eta dietak:

2026ko maiatzeko gastuak:

Bazkari, luntxak	230,20
Guztira	**230,20**

-XIX-

ESKARI-GALDERAK

Janire Mitxelena EAJ/PNV bozeramaileak hitza hartzen du eta honakoa adierazten du.

“Gure taldeak Ikastolako bi urteko gelaren egoerari buruzko hainbat galdera erregistratu zituen, gai honen garrantzia ikusita eta familiek erantzun publiko argiak eta gardentasuna merezi dutelako. Gure asmoa, galdera horiek osoko bilkuran bertan planteatzea zen. Hala ere, galdera horiek idatziz erantzun zaizkigu, eta eskertzen dugu. Baina egia esan, jasotako erantzunak zalantzak argitu baino hainbat galdera ere sortu dizkigu.

Lehenik eta behin, gauza bat argi utzi nahi dugu. Bi urteko gelaren plangintza Hezkuntza Sailaren eskumena da. Hori ez dugu zalantzan jartzen. Baina baimenak, izapide administratiboak eta udalari dagozkion tramite guztiak, udalaren ardura dira. Eta hor dago gaurko eztabaidaren muina. Ez gaude hemen Hezkuntza Sailaren plangintza epaitzen. Galdetzen ari garena da: udalak bere esku zegoena garaiz eta modu egokian egin al du? Zergatik eskatu zen leku aldaketa edo transferentzia eta ez jardueraren etetea eta ondorengo izapidetzea?

Zergatik ez dira tramite horiek aspaldi egin? Zergatik itxaron da azken unera arte? Eta batez ere, gaur bizi dugun egoera hau saihestu ahal zitekeen tramite horiek garaiz eta modu egokian egin izan balira. Gaur badakigu Oiartzunen bi urteko gela egon egongo dela, Elizaldek datorren ikasturterako planifikatuta duelako, baina Hezkuntza Sailak helarazitako informazioaren arabera ikastolak ez du datorren ikasturterako bi urteko gela planifikatuta. Eta galdera oso sinplea da: zergatik? Zergatik izango du Elizaldek bi urteko gela eta ikastolak ez? Zer gertatu da bidean, zer ez da garaiz egin? Eta galdera hau ez da txikia.

Izan ere, ikastolak berak ere, gai honen inguruko kezka helarazi zigun. Eta horrek erakusten du egoera honek benetako ziurgabetasuna sortu duela. Eta agian, gaur erantzuna izango da: lasai, gero konponduko dugu edo udalak beharrezkoa dena egingo du. Baina hori ez da gaurko galderari erantzutea. Gaurko galdera ez da ea gero konponduko den ala ez. Gaurko galdera da zergatik iritsi garen egoera honetara. Zergatik ez dira udalaren esku zeuden izapideak garaiz egin? Zergatik ez da egoera hau lehenago aurreikusi? Eta zergatik iritsi behar dugu azken unera arte ondoren presaka konponbideak bilatzeko.

Izan ere, erakunde publiko baten ardura ez da arazoak sortzen direnean konpontzea bakarrik. Erakunde publiko baten ardura da arazo horiek aurrez saihestea. Eta hori da, hain zuzen ere, gaur salatzen duguna. Erantzunean bertan esaten da, gainera, halabeharrez izanez gero, aurrekontu zuzkidura dagoela gaur egun ematen den zerbitzuari eusteko. Eta horrek ere galderak sortzen dizkigu: Zein egoeratarako aurreikusten da aurrekontu zuzkidura hori?

Zergatik ikusten da beharrezko diru kopuru hori aurreikustea? Eta batez ere, nork hartuko luke bere gain kostu hori? Izan ere, aurreikuspen faltaren edo kudeaketa eskasaren ondorioz udalaren baliabide

ESKU8c92eb32-02e5-4b63-96ae-845e66ae6776

ekonomikoak erabili behar badira, azken finean, oiartzuarrak izango dira egoera honen kostua bere gain hartuko dutenak. Eta hori da benetan larria. Hilabeteetan zehar denak kontrolpean zegoela esan zen, hilabeteetan zehar esan zen ez zegoela arazorik, hilabeteetan zehar errealitate administratiboari aurre egin beharrean lehentasuna errelatu politiko bat inposatzea izan da, baina gaur errealitatea bestea da.

Oiartzunen bi urteko gela egongo da, bai, baina ikastolak ez du izango. Eta horrek azalpen politiko bat merezi du. Norbaitek azaldu beharko du zergatik iritsi garen egoera honetara eta zergatik sortu den desberdintasun hau. Izan ere, hori ez da kasualitatea. Kudeaketa baten ondorioa da. Herritarrek ez dute administrazioaren arteko eskumenen inguruko eztabaidarik nahi, familiek gauza bakarra jakin nahi dute: Zergatik izango du Elizaldek bi urteko gela eta ikastolak ez? Eta galdera horrek gaur egun oraindik ez du erantzun argi eta sendo bat. Horregatik gaur ez dugu etorkizuneko promesarik eskatzen.

Gaur azalpenak eskatzen ditugu, azalpenak egoera honetara nola iritsi garen jakiteko, eta batez ere familiei ziurgabetasuna kendu eta egia emateko. Hori baita erakunde publiko baten benetako betebeharra.”

Alkateak hitza hartzen du eta honako erantzuten dio:

“Ez naiz erantzunean gehiegi luzatuko. Zuk esan bezala nola galderak idatziz egin zenituen, eta guk ere idatziz erantzun genuen, ba, lehenengo paragrafoa bakarrik irakurriko dut, uste dut horrekin nahikoa dela.

EAJ-PNV udal taldeak Ikastolako bi urteko gelaren egoerari buruz aurkeztutako galderen harira, udal gobernuak honakoa adierazi nahi du: EAJ-PNV udal taldeak aurkeztutako idazkiari dagokionez, lehenik eta behin argitu behar da Ikastolako bi urteko gelaren baimen eskaera ez dela Oiartzungo udalaren eskumeneko izapidea. Ez da udal gobernuak bideratu beharreko espediente bat ere, ez da gurea. Izan ere Ikastolak berak aurkeztu zuen dagokion baimen eskaera Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren aurrean, 2025eko maiatzean. Eta eskaera horren izapidetzea eta ebazpena Hezkuntza Sailaren eskumenekoa da esklusiboki.”

Janirek alkateak adierazitakoari erantzun du esanez udalak bazekiela transferentzia bat egin beharrean etete bat egin behar zuela ondoren beraiek eskumen hori edukitzeko.

Alkateak dio, Hezkuntzak udalari hori adierazi balio hori egingo zuela.

Janirek Ikastolaren kezka adierazten du, Ikastolak bi urteko gela ea edukiko duen galdetu zietela eta egin behar ziren tramiteak garaiz egin ote ziren zalantzan jarri omen zuten.

Alkateak, Hezkuntzak egindako errekerimendu guztiak epean erantzun direla adierazi du eta beraien galderak egiten dizkien momentuan isiltasuna besterik ez dutela jasotzen adierazi du.

Herritar batek hitza hartzen du eta ondorengoa adierazten du:

“Arratsalde on. Harira etorrita, bi urteko gelaren ardura, zuek esan duzuen bezala, Hezkuntza Sailarena da. Hala ere, Oiartzunen bazegoen, edo hobeto esanda, zegoen, eskumenen nolabaiteko solapamendua; izan ere, oker ez banago, Partzuergoak ere bazuen bi urteko gelaren inguruko ardura, Elizalde ikastetxearen kasuan bezala.
Bestalde, zuen esanetan arrakastatzat jo den neurri hori —oker ez banago, azken plenoan edo azken plenoren batean hala aipatu zen—, zergatik ez zen lehenago gauzatu?
Eta aurrera begira, Oiartzunen geratzen den ikastetxe pribatu bakarrari zergatik ez zaio aukera ematen arrakasta horretara gehitzeko? Zein da erabaki horren arrazoia?”

ESKU8c92eb32-02e5-4b63-96ae-845e66ae6776

OIARTZUNGO
UDALA

Eta beste aztergairik ezean, lehendakariak amaitutzat eman du batzarra, 18:50ak direnean. Idazkariak batzarrari dagokion agiri hau idatzi eta alkateak irakurri eta ontzat eman ondoren, biek izenpetu dute, bat etorriz Toki Erakundeen Antolamendu, Jardunbide eta Araubideari buruz indarrean dagoen Erregelamenduaren 110.2 artikuluan agindutakoarekin. Eta horren guztiaren fede, nik, idazkaria naizen honek, ematen dut.

Alkatea



Sin.: Joana Mendiboure

Idazkaria



Sin.: Maria Victoria Joaristi Olariaga

VI. GAIA. ERANSKINA

ARRAGUAKO (OIARTZUN) ARR-1A ETA ARR-1B EREMUEI DAGOKIEN PLANGINTZAKO HIRIGINTZA-HITZARMENA

BILDUTA

Alde batetik, Joana Mendiboure Garaiar And.a, OIARTZUNGO alkate bezala;

Bestetik, Felipe Gómez Arriaran jn.a, 15.982.778D NAN duena, eta jakinarazpenetarako helbidea Donostiako Portuetxe 59-A, bajo, Donostia, 20018, 2025HI160001 espedientean egiaztatuta duen ordezkaritzaren egikaritzan.

PARTE HARTZEN DUTE

Bi alderdiek elkarri aitortzen diote HITZARMEN hau sinatzeko gaitasuna, eta, horren ondorioetarako,

ADIERAZI DUTE

I.- Hitzarmen honetan aipatzen diren Arragua auzoko eremuetako hirigintza-historiatik hurbil dauden aurrekariak honako alderdi hauetan zehazten dira:

1.- 2009ko martxoaren 26an, Oiartzungo Udalak hirigintza-hitzarmen bat sinatu zuen Bruesa Inmobiliaria SArekin, udalaren eta sustapenaren arteko irizpide-desberdintasunetik sortutako egoera disfuntzionala gainditzeko. Hitzarmen hori antolamendu-irizpideei eta eremua garatzeko alderdien betebeharrei buruzko akordio batekin amaitu zen.

2.- Ondoren, 2010/02/24ko osoko bilkuran izapidetu eta onartu ziren garapen-plangintzako dokumentuak, ARR-1A eremuko Plan Berezia eta ARR-1B sektoreko Plan Partziala (2010/03/10eko eta 2010/03/11ko GAO, hurrenez hurren). Aldi berean, urbanizazio-proiektua eta birpartzelazio-proiektua onartu ziren.

ESKU8c92eb32-02e5-4b63-96ae-845e66ae6776

3.- Hitzarmen horrek honako eraikigarritasun hau agintzen zuen: 10.780 m² t.e. salmenta libreko etxebizitzetarako eta 2.000 m² t.e. hirugarren sektoreko erabilerarako ARR-1A eremuan eta 36.064 m² t.e. gehieneko eraikigarritasuna salmenta libreko 60 etxebizitzatarako, 82 tasatuetarako eta 212 BOEtarako, eta 4.000 m² t.e. hirugarren sektoreko erabilerarako.

4.- Hitzarmena sinatu zuen sustatzaileak urbanizazioaren kargak bere gain hartzen zituen, 14.121.892,89 €-ko mugarekin, baina egiaztatuta zegoen aurretik egindako gastuen kostua, 6.461.674,86 €-koa, eremuetako betebeharrei egoztekoak eta, beraz, ordaintzeke zegoen kargatik kengarriak.

5.- Hirigintza-ekintzak sortutako gainbalioetan komunitateak duen partaidetza honela gauzatuko zela erabaki zen:

- Lurzati eraikigarri bat entregatuz, gehienez 2.500 m²-ko merkataritza-eraikigarritasunarekin eta 1.000 m²-ko bulego-eraikigarritasunarekin.
- Zati batean, bere balioa eskudirutan ordaintzeagatik, hau da, 1.575.000 €.

6.- Azkenik, 2015eko martxoaren 25eko osoko bilkuran behin betiko onartutako Oiartzungo Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak (2015/05/12ko GAO, 87. zk.) aurretik onartutako plangintza orokorraren eta antolamendu xehatuaren parametroak errepikatzen ditu.

II.- 12 urte baino gehiago igaro ondoren, eta eremuen sustapenak eta jabetzak horiek garatzeko ekimenik egin ez dutenez, Udalak, 2022ko martxoan, Blas Urbizu Zabaleta arkitektoari *"Arraguako berrantolamendu xehatuaren proposamena (ARR-1A eta ARR-1B), antolatu beharreko eraikigarritasuna doituta, aparkaleku beharrei erantzunda eta kargak eta bideragarritasuna aztertuta*" dokumentua idazteko agindu zion. Aldi berean, Endara Ingenieros Asociados SLk 2021eko abenduan egin zuen dokumentu hau idazteari ekin zitzaion: "*Arraguako antolamendu berriaren urbanizazioaren gutxi gorabeherako azterketa eta balorazioa faseetan (1. eta 2. faseak)".*

Udal-irizpideei jarraiki, bi dokumentuen helburua zen Arraguan egiteke dauden eraikigarritasunak birdimentsionatzea, ingurunearekin eta hiri-ehunarekin modu egokiago eta orekatuagoan. Horrela, erredaktoreek proposatu zuten eraikigarritasuna murriztea, urbanizazio-kargak murriztearekin batera, halako moldez non, antolamendu-proposamena hobetzearekin batera, egikaritze-baldintzak arrazionalizatzea, zatiketa fasetan bideratzea eta, azken batean, eragiketa bideragarri eta onargarri bat sortzea, fisikoki, ekonomikoki eta sozialki.
Ondoren, Udalak eskatuta, honako dokumentu hauek idatzi dira:

- ARR-1A eta ARR-1B eremuen genero-eraginari buruzko txostena, PROJEKTA CONTRACT S.C.P. enpresak idatzia.
- ARR-1A eremuko Plan Berezia eta PROJEKTA CONTRACT SL-eri eskatutako ARR-1B eremuko Plan Partziala izapidetzean herritarrek parte hartzeko aholkularitza.
